



Eneko SARALEGI

Azpitzapeldun Eusko Label Banakako Aizkolarien Txapelketan → 54

## Herriko bestak

Azpilkueta, Almandoz, Lesaka eta Saldias

## ZUBIETA → 33

II. gazta lehiaketa Besta-Berri egunean

## ERATSUN → 37

Heldu den ikasturtean ez da eskolarik izanen

## BAZTAN → 44

Bideo lehiaketa antolatatu du Bidelagun Elkarateak

## URDAZUBI → 49

Monasterioa erre zuteneko kaliza



## Dena prest La Indurainen XX. ediziorako

Ia 2.000 txirrindulari espero dituzte larunbat honetan La Miguel Indurain proban. Aurten ere 2 ibilbide izanen dituzte: 186 kilometrokoa luzeena eta 113koa motzena. Hau idazterakoan baieztatu gabe zegoen XX. mendean Tourra 5 aldiz irabazi zituzten Eddy Merckx eta Bernard Hinault etorriko ote diren CC Beratarren gonbita onartuta. **ERREPORTAJEA → 4-5**



Egoera larrian daude abeltzainak. Ekoizteko kostuak % 20 igo zaizkie bataz bertze eta euren produktuen kontsumoa murriztu egin da. Gauzak horrela, aldaketa gizartetik hasi behar dela dio Mikel Altzuartek, «etxekoa baloratzen hasiz»

ELKARRIZKETA → 3

Mikel ALTZUART | Arizkungo abeltzaina eta EHNEko zuzendaritzako kidea

## Baserriak bizirik mantentzea gizartearen esku ere badago

### UDALAK → 23

**2010eko datuen arabera, 21,4 milioi euroko zorra dute eskualdeko 18 udalen artean**

Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak emandako datuen arabera, 2009ko datuekin konparatuz %0,5a handitu da zorra 2010ean.

### BAZTAN → 46

**Idazkari lanposturako oposizio lehiaketa geldiarazi du Udalak**

### HEZKUNTZA → 26

Ezinegona sortu du **Lesakako Ikastolako** guraso eta irakasleen artean Patronatuaren proposamenak

Cornelia Lekuona Fundazioaren eta Tantiur-mairu ikastolaren arteko kontratua 2015ean bukatzekoa da. Proposamen berriak nabarmen aldatuko lituzke orain arteko baldintzak.



**DESKONTUAK | ZOZKETAK  
ALDIZKARIA MUSUTRUK**

Eskatu zurea **948 63 54 58** telefonoan

**544. ALEKO IRABAZLEAK**

\* EREIN 2 LIBURU

Ni ez naitz biziolo...? | Arantxa CONDE | Lesaka  
Gorlek giltzapean | Pablo BERGARA | Arantz

\* AQUARIUM 2 SARRERA

Mirentxu SUJAS | Urdazubi

\* LANKU HAINBESTE, HAIN GITXI CDa

Pilar ESKUDERO | Beña

\* ARKUPE TXOKOLATEA

Itziar IRIARTE | Nerbarte

\* ONDDO TA PUNTO KAMISETA

Laura IRAZOKI | Beña

\* TTARTALO KURRIN HAURENDAKO LIBURUA

Nicolasa OTXOTEKO | Lesaka

**TTIPI TXARTELA**rekin  
BETI IRABAZTEN DA!



**TTARTALO 2 LIBURU**  
Ttartalo argitaletxea  
[www.ttartalo.com](http://www.ttartalo.com)



**PUNPALAPLAN CD + DVD**  
Urbintxa eskola  
[www.urbintxa.org](http://www.urbintxa.org)



**KAMISETA BAT**  
Oninart denda  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)



**MARTIKO LOTEA**  
Martiko  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)

**TTIPI SASKIA**



**PRODUKTUAK:**  
IBAIZABAL ARGITALETXEA LIBRETATXOA  
EREIN ARGITALETXEA 3 LIBURU  
IBAIZABAL ARGITALETXEA LIBURU BAT

**DESKONTUAK**

**Agara**  
kirolak  
%5 kirol artikuluetan

**Amaia**  
Euzko eta erlano arloko  
%5 kosmetikan %10 oparitan

**ALTZURI**  
%5 etxe-tresnetan

**BERAUTO**  
%5 erretanbiotan

**bixkak**  
%10eko deskontua

Egoera larrian daude nekazari eta abeltzainak, baina bereziki azken hauek. Diotenez, «inoiz ikusi duten krisi larrienaren» aitzinean daude. 2008ko krisiak bete-betean jo zuen

abeltzaintza, baina azken urtea oraindik txarragoa izaten ari da. Ekoizteko kostuak batzertze %20 igo zaizkie, eta euren produktuen kontsumoa murriztu egin da. Egoera honetan,

Nafarroako Gobernuaren jarrera «pasiboa» salatu du EHNEk, baina horrekin batera, aldaketa gizartetik hasi behar dela dio Mikel Altzuartek, «etxekoa baloratzen hasiz».

Mikel ALTZUART | Arizkungo abeltzaina eta EHNEko zuzendaritzako kidea

# «Ez dakit zein desagertuko garen lehenago: apaizak ala nekazariak»

G. PIKABEA | ARIZKUN

**Nekazaritza eta abeltzaintzaren egoera «ezin txarragoa» dela adierazi duzue EHNEtik...**

Globalizazio ekonomikoaren garapenarekin zehrikusi haundia du. EHNE sortu zenean, 1982an, merkatu irekierako edo Europako merkatuaren batasunak honat inportazioak ekarriko zituela eta gure produktuak sunsittuko zituela erran zuen EHNEk. Familia aunitz bizi ginen orduan abeltzaintzatik, azientza aunitziz gabe etxeko lur eta azienekin. Baina merkatu europarraren testuinguruan eta mundu mailan merkantziak libre izanik, non merkeena eskaintzen duenari erosteak bakarrik inporta duen, hasi zen gure gainbehera. Profesionalizatu behar genuela erantzun ziguten, enpresariak izan eta konpetitzeko. Eta konpetitzeko, inbertsioak egin ziren, azientza taldeak haunditu, lursailak alokatu... Sekulako ahalegina. Azientza gehiago izanik ez ditugu gure lurrekin bazkatzen eta kanpoko elikagaien menpeko egin gara. Orain gero eta gutiago gelditzen ari gara, konpetitiboak izateko eta irauteko modurik gabe. Nekazaritzaren ekonomian talde ekonomiko nagusiak eta diruarekin bertze sektore batzuetan espekulatu dakitenak



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Mikel Altzuartek ekologikoki ekoiztutako arrautzak egiten ditu, Dutarimuno izenarekin.

sartu dira eta espekulazio horrekin abeltzainak gara galtzaile nagusiak. **Noiz hasi zen hori?** Fenomeno espekulatibo hori 2008an hasi zen. Zerealen prezioak %20 igo ziren, abereen oinarriko elikagaiek historiako preziorik altuenak hartuz. 2008an krisiaren ondorioa ez zen hain bortitza izan eta gure ekoizpenak orain baino prezio hobean saldu genituen. Orain, espekulazio horrekin, zerealek ikaragarriko prezioa dute eta gure ekoizpenak ezin salduz ari gara. 30 urteotan, konpetentziaren bidez, abeltzaintza eta nekazaritzatik bizi zen sekulako jende pi-

## PREZIOEN BEHERAKADA

«Behi-esne litroa 30-31 zentimo euro kobratzen dute ekoizleek orain, eta 2008an 40 zentimo egiten zituen. Ardi esnearen prezioa azken urteetako eskasena da. Bi hilabetera kobratzen dute artzainek eta ez dakite zenbat kobratuko duten. Haragitarako behia orain 30 urte baino merkeago saltzen da. Orduko negozio maila izateko kiloa kanalean sei eurotan saldu beharko litzateke, baina erdian egiten da.»

la galdu dugu, eta azken hiru urteotan, gelditzen garenok ez dakigu aitzinerat egiten dugun ala ez. Hortaz erraten dugu 2008koa larria bazen, 2011n makurrago gaude. Espekulazioak ikaragarriko indarra du, eta batzuk zakua betetzen ari direnean, gu ezin salduz. **Egoera honek noiz arte iraun dezake?** Logika hau hain agresiboa da, bere burua itozten duela. Ekonomia kapitalistaren defendatzaileek eskaerak eta eskaintzak ekonomia erregulatu dutela diote, baina ez dute kontuan hartzen espekulazioak eskaintza eta eskariaren logika guz-

tiak puskatzen dituela. Guk beti erran izan dugu, ekoizpena kontrolatu eta merkatua erregulatu behar dela, kontsumitu behar denareko ekoiztu. Bertze sektoreek hartzen duten laguntzarekin alderatuz, abeltzain eta nekazariok ez dugu deus hartzen. Europak ematen duenarekin, osasuntsu ez dagoen zerbaite tratamenduan dago, baina lagundutako nekazaritza benetako nekazaritza izateko elikadura burujabetzaren bidea hartu behar litzateke. Baina hori ez da politikatik aldatzen. Ez dagozkigun ongizate eta kontsumo mailak lortu ditugu. Hortaz ohartuz, gure kontsumoa eta ohiturak aldatu eta bertze kontsumo ereduak sortzen baditugu, benetako pausoak eman daitezke.

**Nola nabaritu da krisia?** Abeltzaintzan %20 igo dira gastuak. Beren lurrekin lan egiten duten bertze eredu batzuk Euskal Herriko abeltzainak baino hobeki daude. Ez dago errentagarritasunik, eta horrek ez dakar belau-naldi berrien erreiborik. Ikaragarriko afizioa dutenak bakarrik gelditzen dira. Norbaitek erran zuen apaiza izateko baino bo-kazio haundiagoa behar dela. Ez dakit zein desagertuko garen lehenago, apaizak ala nekazariak. **Elkarrizketa osorik: [www.ttipi.net-en](http://www.ttipi.net-en).**



1992ko lehen edizioan, Miguel Indurain, CC Beratarako Enrique Irazoki antolatzailearekin.

**TXIRRINDULARITZA** → HOGEIGARREN EDIZIOAREN KARIETARA

# Tourra borts aldiz irabazitakoak bildu nahi dituzte Berako La Miguel Indurain proban

Atarrabiako txapeldun handiarekin batera, Eddy Merckx eta Bernard Hinault etorriko liriateke

Bere lehenbiziko bi Frantziako Tourrak irabaziak zituen Miguel Indurain txirrindularia omentzeko asmoz zikloturista proba egitea gogoratu zitzaion 1992an CC Beratarra txirrindulari taldeari.

Aurtengoan 20. edizioa beteko du proba honek eta hori ospatzeko, Atarrabiako txirrindulariaz gain, XX. mendean Tourra borts aldiz irabazi zituzten Eddy Merckx eta Bernard Hinault ekarri nahi dituzte Berara.

## Aitor AROTZENA

Azkeneko urteetan uztaileko laugarren igandean egin da La Miguel Indurain proba, baina aurten ekainaren 25era aitzindu du CC Beratarra talde antolatzaileak.

Arrazoa: Miguel Indurainekin batera Frantziako Tourra borts aldiz irabazi zuten Bernard Hinault eta Eddy Merckx Berara ekartzea. Oraindik ez dago garbi helburua lortuko duten, baina horre-

tan saiatzen ari dira antolatzaileak.

Lortzekotan, 20. edizioa aski berezia izanen zen. CC Beratarra taldeko Jose Mari Telletxeak gogoratzen duenez, «txirrindulari elkartea sor-

tu genuenetik, beti probak antolatzen ibiliak gara. Gainera, lehenbiziko txirrindularitza eskola martxan paratu genuen eta bizikletarako afizio handia zegoenez, zikloturista ateraldiak plantatzen hasi ginen. Euskadiko Pedalaren Eguna antolatu genuen eta azkenean Miguel Indurain berarekin solastu eta zikloturista proba bati bere izena ematearen ideia aipatu genion. Ongi iruditu zitzaion eta erraztasun guziak eman zizkigun». Pentsatu eta egin. Lehenbiziko edizio hartan kasik 500 txirrindularik parte hartu zuten, «inoiz pentsatuko ez genuen kopurua» eta azken aldian 1.700 eta 2.000 partehartzaile artean izan dituzte. Arrakasta ikusita, proba Atarrabiara eramateko saiakeraren bat ere izan da, baina Indurainek erran zuen CC Beratarra antolatzeko gogo zuen bitartean Beran eginen zela.

Ibilbidea ere aldatuz joan da, «batzuetan errepidearen egoera txarra-

rengatik, urte batzutan Iparraldera sartu ginen, baina horrek arriskua zeukan, Foruzaingoa ezin zelako pasatu eta azkeneko lau edizioetan edo ibilbide berberak egiten dituzte, bata luzea, 186 kilometrokoa eta bertzea laburragoa, 113 kilometrokoa, eta «biak partehartzaileen gustokoak dira», Telletxearen erranetan. Izan ere, Berako proba probatzen duten gehienak gustora gelditzen direla aipatu digu CC Beratarra ordezkariek eta gehienek errepikatzen dute. Horren erakusgarri, Kataluniako Molins de Reiko taldea, bere hamargarren partehartzea gogoratzeko mailot bereziarekin etorri zen iaz. Tenerifeko CC Tayda taldeko 13 txirrindulari ere izan ziren Beran.

## 250 LAGUNTZAILE

Izan ere, La Miguel Indurain probaren egunean 250 lagun aritzen dira dena ongi atera dadin eta horien borondatezko lanarik gabe ez zela pro-

sible izanen onartzen du Jose Mari Telletxeak: «Sineztzina da baina apar-kalekuetan, izen-emateko gunean, irteera-helmugan, hornidura lekuetan, bidegurutzetan, loturako motoetan, luntxa banatzen... lanerako gogoz egoten da jendea. Honelako martxa bat antolatzea baino errazagoa da bertze edozein karrera antolatzea». Egun horretan lanean aritzeko prest dagoen edonor antolatzailerekin harremanetan jarri eta besoak zabalik hartuko dutela ere aipatu digu.

Aurten, lehen aldiz, izen ematea Internet bidez egiten ari dira ([www.laindurain.com](http://www.laindurain.com)) eta gehienez ere 2.000 txirrindulariren muga jarri dute. «Hagitzez hobe da horrela –dio Telletxeak– aitzinetik badakigu zenbat jende izanen dugun eta horren arabera prestatu. Beran ez daukagu 2.000 lagun baino gehiago hartzeko azpiegiturarik, lotarako tokia emateko orduan adibidez, Elizondo eta Irun aldean ere berehala betetzen baitira. Horregatik, kopuru horretara heltzen bagara, segidan itxiko da izen-emateko aukera».

### GOIZEAN BERAN ATERA, ARRATSALDEAN ERLOJUPEKOA IRABAZI VALLADOLIDEN

Miguel Indurain berak ahal duen guzietan parte hartzen du bere izena daraman Berako proban. Joan den urtean, bere emazteak ere egin zuen proba laburra. «Bera den txapeliduna bezalaxe portatu zaigu beti eta ez digu inoiz hutsik egin, Tourrean omenaldia egin zioten urtean izan ezik», aipatu digu Telletxeak.

Baina Beran bereziki gogoan dute 1993ko proba. Indurainek goizez kilometro batzuk egin zituen Beran eta arratsaldean, Gaztela-Leongo Itzuliko erlojuaren kontrako saioa irabazi zuen. «Ongietorri zitzaidan goizean kilometro batzuk egitea, hankak soltatu eta giharrak prestatzeko normalean ere hori egiten genuen. Valladoliden egin beharrean hemen egin nuen» aipatu dio TTIPI-TTAPari Miguel Indurain berak, garrantzia kenduz.

Hinault eta Merckx-ekin biltzeak ere ilusioa egiten dio Atarrabiakoari, baina zail ikusten du, «bakoitzak norbere

### FRANTZIAKO TOURRA 5 ALDIZ IRABAZITAKOAK



EDDY MERCKX

*Tervuerengo Ogroa edo Kanibala*


- **Jaioteguna:** 1945eko ekainaren 17an.
- **Jaioterria:** Meensel-Kiezegegem (Belgika)
- **Profesionala:** 1965eko maiatzaren 1etik 1978ko maiatzaren 1era.
- **Palmaresa:** 525 garai-pen lortu zituen. Frantziako Tourra (5), Italiako Giroa (5) eta Espainiako Vuelta (1). 1974an Giroa, Tourra eta Munduko txapelketa irabazi zituen. 1972ko urriaren 25ean Munduko orduko errekorra egin zuen Mexikon (49,431 km).



BERNARD HINAULT

*Bretainiako kaimana edo Azkonar Ttikia*

- **Jaioteguna:** 1954ko azaroaren 14an.
- **Jaioterria:** Yffiniac (Bretainia)
- **Profesionala:** 1975etik 1986ko azaroaren 9ra.
- **Palmaresa:** 216 garai-pen lortu zituen. Frantziako Tourra (5), Italiako Giroa (3) eta Espainiako Vuelta (2). Denera 41 etapa irabazi zituen hiru lasterketa horietan. Munduko txapelidun izan zen 1980an. 1980ko Lieja-Bastogne-Lieja irabazi zuen elurpean, bigarrenari 9 minutu ateraz.



MIGUEL INDURAIN

*Miguelon, Atarrabiako estralurtarra*

- **Jaioteguna:** 1964ko uztailaren 16an.
- **Jaioterria:** Atarrabia (Nafarroa)
- **Profesionala:** 1984ko irailaren 7tik 1997ra.
- **Palmaresa:** Frantziako Tourra borts aldiz segidan (1991tik 1995era), Giro Italia (1992 eta 1993). Erlojupekoan Munduko txapelidun (1995) eta Olinpiadetakotxapelidun (1996) izan zen. Paris-Niza (1989 eta 1990), Dauphiné Libéré (1995 eta 1996), Donostiako Klasikoa (1990)...

agenda izaten dugulako eta zail izaten delako denak bateratzea. Antolatzailerekin ahal duten gu-

zia egiten ari dira eta jendearentzat polita izanen litzateke».

Ea bada txirrindularitzako hiru munstro hauek Beran ikusteko aukera dugun.

### MIGUEL INDURAIN, KONTENT BERA KO PROBAN

## «Txirrindularitzaren besta handi bat da Berakoa, erabat sendo dagoena»

Gustora erantzun dio Miguel Indurainek TTIPI-TTAPAtik telefonoz egindako galderi. Lehenbiziko saiakeran bizikletan entrenatzen ari zen, baina saioa bukatu bezain laister solasteko prestu azaldu zaigu. **Zer oroitzapen duzu 1992ko lehendabiziko edizio hartaz?** Neretzako gauza berria izan zen. CC Beratarra taldeko jendearekin solasten aritu nintzen eta nolabait bi lehendabiziko Tour haiek irabazteagatik omenalditxo bat egin nahi zidatela aipatu zidaten, txirrindularitza

giroa berpiztu bidenabarkoan. Orduan ez zen gisa honetako proba askorik izaten, berrikuntza izan zen eta jendea gustatu egin zitzaion.

**Geroztik zure izena daramaten Sari Nagusiak, karririk, kiroledegiak... badira, baina hau izan zen jaso zenuen lehen errekonozimendua?**

Sariren bat edo jasoa nuen, baina hau urtero-urtero antolatzen den ospakizuna da, ezberdina da. Herriko jendeak parte hartzen du antolaketan, kanpoko jendea etortzen da parte har-

tzer... Txirrindularitzaren besta handi bat da, erabat sendotua dagoena.

**CC Beratarra taldekoek zuk erakusten duzun borondatea ere aunitz eskertzen dute...**

Nik ahal dudanean laguntzen dut, baina beraiek dira ardura guztiak hartzen dituztenak. Niri gustatzen zait parte hartzea eta horregatik askotan izan naiz Beran. Txirrindularitza gogoko dut eta, nere erritmoan, praktikatzen dut.



Bere izena daraman Berako probaren sari banaketan.



**Nire txanda**  
Ruben GARATE

## Udaz gozatzera!

**S**an Joan badator, eta berekin batera udako solstizioa. Jendeak neguko ohiturak aldatzen ditu. Haurren, egunetik egunera gehiago nekatu dituzten ikasturtea eta eskolaz kanpoko jarduerak akitzen dira. Eguraldi eguzkitsua hasten da normalean, egutegian herrietako bestak ageri dira han eta hemen eta, nola ez, preziatutako oporrak forma eta kolo-rea hartzen hasten dira: «Karrikan egoteko modua izan eta nork nahi du etxera joan?» Nora joanen gara aurten? Horixe da hemendik aitzinera eginen dugun galderetako bat, ez badugu dagoeneko egin. Hemendik aitzinera ordutegi guziak aldatu eta deskudratuko dira, ez dago etxera erretiratzeko modurik, izan ere, karrikan egoteko modua izan eta nork nahi du etxera joan? Izan ere, uda, zorientasuna eta zalapartaren arteko zerbait bezalakoa da. Zer izanen litzateke ez bagenituzke atsedean eta erlazazio hilabete hauek, nahiz eta ongi pentsatuta, ez dugun sobera atsegiten. Halere, ongi dator aldaketa, onerako bada. Gozatu denak udaz!

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Tori ostia!

**A**ztoratuak somatu ditut gurasoak. 9 urteko seme-alabek lehen jaunartzea egin behar eta ostiarekin batera, aborto, dibortzioa eta bertze hainbat gai nahaspilatzen zituen diskurtso (a)po(ka)litikoa irentsi behar izan dute, ordu terdiko sermoian. Normalean huts xamarra egoten den txokoa bete ikusteak indarra ematen du nonbait. Baina norberak aukeratzen du zein txokotara joan.

### Nabarmentzekoak



Maddalen LOPEZ  
Lesakako bertsolaria

14 urtez beheitiko Nafarroako Eskolarteko Bertsolari txapelketa irabazi du bigarren urtez segidan. Larunbat honetan, Euskal Herriko txapelketan parte hartzekoa zen.



Begoña SANZBERRO  
Baztango UPNko zinegotzia

Landa Garapeneko eta ingurumeneko jarduneko kontseilariak berak eskatuta Nafarroako Gobernuak kide izateari utzi dio, zinegotzi ardurara hartzeko. Bi karguak bateraezinak dira.



Sokorro DUFURRENA  
Baztan Ikastolak omendua

Ekinaren 12an egin zuen urteko besta Baztan ikastolak Elizondon eta 1971n irakasle lanean sartu zen emakumea omendu zuten. Aurten hartu du erre-tiroa Sokorrok.

Atzera begira → 2002.06.20 / TTIPI-TTAPA 328. zbk



### Florentino Ibarra, azken guante egilearekin solasean

«Pena da baina nik uzten dudanean ez da guante egilerik geldituko». Halaxe zioen Beintzako Florentino Ibarra guante egileak duela 9 urte. 18 urte zituenean egin zuen lehendabiziko guantea. Ogibidez zapatagilea izana zen eta erretirata afizioz aritzen zen guanteak egiten. «Honek ez du dirurik ematen. Guante bakoitzak hamar orduko lana du» zioen. Lanbidea ez galtzeko erakusteko prest zegoen Ibarra, «izan dira bizpahiru etorri direnak, baina ez dute egunik galdu nahi eta ikasteko denbora galdu behar da».



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduetzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi-ttapa

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellexea, Joanes Garcia...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

### 2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Lesakako bertsolari igantziarra

Mikel TABERNA IRAZOKI *Kapi*

**E**skutan dut *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak* liburua. Protagonista nagusia Igantzin jaio zen (Aiesteneko bordan), 1882an, baina gero Lesakara esposatu eta bertan bizitu zen bere denbora gehiena, bai eta bertsolari bezala famatu ere. Donostian hil zen, seme Pepitoren etxean, 1962an. Liburuaren lehenbiziko partean, semeak aitaren bitzta kontatzen du.

Paulo ez zen normalean jende aitzinean bat-batean aritzen, baina makina bat bertso-sorta jarri zuen: *Bertso berriak*, *Paulo Yanzik jarriak*... Garai bateko bizimodua eta orduko jendearen pentsamoldea eta kezak ezagutu nahi dituenak, hementxe du disfrutatzeke denbora-pasa ezin hobea.

Hamaika klasetako bertsoak paratu zituen. Haietako aunitz Lesakako herrian gertatu ziren kontuei buruzkoak: pertsonaia xebreak; iñauteriak eta sanferminak; Alkaiaga eta Zalain Zokoko goitibeheitiak; fabrika berria; Beti Gazteren azainak; neskatxa gazteen manera berriak; gizongai desengainatuarenak; Ameriketako artzain ziren ilobei kartaz bidaliak...

Baina bertzelako gai zabalagoak ere ibili ziren: munduaren sorrera; aizkolapustuak; euskara eta bertsolari-txapelketak... Afrikako gerrari buruzko ospetsuak ere bertan dira, Lete-Lekuona-Valverde egindako *Bertso zaharrak* diskoagatik ezagutu genituenak.

Eta bertso paregabe batzuk, *Lengo batez amestun* izenburua dutenak. Hil ondotik, munduko pobreak zerruan ikusten ditu eta aberats guziak, berriz,

infernuan kixkaltzen: *Kanpotik ikusi nuen / infiernuko labia, / mundotik gizen juanakiñ / dago ondo betia; / garretan eziñ egonez / ek daukaten nekia, / sua azpiyatik eta / gañatikan ikia, / an urtu biar emen gaizki / bildutako koipia.*

1936an, militarrek Errepublikaren kontra kolpea jo zutelarik, preso hartu eta kartzelan kontu zuten, ez jakin zenbat denbora. Harrigarria da liburuan gertaera haiek ez aipatzea. Baina, ezin ahanzi liburua 1968an eman zela argitara; Franco oraindik bizirik zegoen!

Inon gordeak ez badaude, norbaitek eskribitu beharko lituzke liburua osatzeko falta diren bertso horiek!

«1936a, militarrek Errepublikaren kontra kolpea jo zutelarik, preso hartu eta kartzelan kontu zuten, ez jakin zenbat denbora. Harrigarria da liburuan gertaera haiek ez aipatzea. Baina ezin ahanzi liburua 1968an eman zela argitara; Franco oraindik bizirik zegoen!»

### Hauteskundeak joan dira

Juainas PAUL ARZAK

**H**auteskundeak joan dira. Emaitzak biltzeko garaia den oraingoan ari behar direnei: ohiko biktimismoan ez erori, hau da, zuri/zuei eginiko kaltea «kristorena» izendatu eta huskeria gisa hartu zuk/zuek egindakoa.

Panorama iluna datorkit begietara. Ezker eta eskuina, mota guztietako nazionalismo delarik, aurkaria nola tratatu izanen dugu saiakera nagusia... talde/alderdikeria berriro ere.

Etsai jokoak duen indarra ikaragarria izanik, horren arabera politika bizikidetzaz ezinezkoa egiteko medioa bihurtzen dugu, alderantziz izan behar bazen ere.

Makurrago. Nire/gure on izateak eta etsaiaren omen gaiztakeriak ia deskuidoan, nahi gabe, beste norabait eramanen gaitu:

nire/gure guztiak zuritza -nirea/gurea beti on- edo, gehienez, on ona ez bada...beste horrek, etsaiak, egiten dituenak saihesteko, gelditzeko izanen dira... Oker xamarrak, behar bada, baina ez beste horrek egin nahi dituen bezain handiak.

Politika elkarbizitza posible eta onuragarria egiteko erreminta izan behar omen da... *Uy-uy-uy ama! ¡Mamma mia!* Esanen luke gaur Berlusconi, herenegun ezinezkoa zirudiena atzo burutu zutelako: bere gehiegikeriak galgatu beharko ditu. Erreferendumen indarra.

Harira. Barru kontraesanez jantzirik egon bada ere

15-M mugimendua (emakumearen paperari buruz, autodeterminazioak direla edo ez direla, hizkuntzak,...), ideologi ugari jende desberdina bat dator «bankeruek» sortutako kalteak ez ditugula denok ordaindu behar.

Ordaintzen ari bagara, politikoen dute errua eta neurri handi batean euren pribilegioak mantendu nahi dituztelako da. Goikoek -Bono eta horiek-itxura egiten hasi dira, dagoeneko. Hemendik aitzinera denak gardenak? Nahikoa ez dela izanen iruditzen zait. Hor ere legeren bat sortu beharko zen, arauren bat parlamentarioek eurentzat sortzen dituzten abantailak mugatzeko.

Badira batzuk sinadurak biltzen. Interesetzen bazazu begira dezakezu helbide honetan:

<http://www.peticionpublica.es>

«Etsai jokoak duen indarra ikaragarria izanik, horren arabera politika bizikidetzaz ezinezkoa egiteko medioa bihurtzen dugu, alderantziz izan behar bazen ere (...) Politika elkar bizitza posible eta onuragarria egiteko erreminta izan behar omen da... *Uy-uy-uy ama! ¡Mamma mia!*»

## Irakurleak mintzo

Cornelia  
Lekuona  
Fundazioaren  
proposamena

Cornelia Lekuona  
Fundazioaren Patronatua

Tantirumairu elkarteak, Cornelia Lekuona Fundazioaren Patronatu honi, ikastolak toki berrien beharra duela adierazi dio eta eraikuntza proiektu batzuk erakutsi dizkio, guttienez 30 urtetako kontratu berri bat eskatuz. Gaur egun 1990. urteko kontratua indarrean dago, 25 urterako, 2015 urtea arte, automatikoki 5 urtetik behin luzatzen dena. Patronatu honek gaur egun ikastolak erabiltzen duen Fundazioaren Otxogorriena etxea haunditzea proposatu zuen, baina hori ez zela bideragarria eta ez zela nahikoa erantzun zuten, eta eraikuntza berri bat behar zela, kontratu berri batekin. Patronatuak zenbait lagun eta giza talderekin solas egin eta gaurko egoera baloratu ondoren, ondoko ondorio honetara ailegatu da: Tantirumairu elkarteak bere proiektua aintzineratzea, etxe berri bat egiteko beharra garbi omen du, eta egin nahi duen inbertsioa bermatzeko kontratu berri bat eskatzea konprenditzen dugu. Fundazioak, bere aldetik, garbi du ere, ezin duela Otxogorriena etxea 30 edo gehiago urtez konprometitu, elkarteak eska-

tzen dion moduan. Horregatik, eta egin zaigun proposamen bateri kasu eginez ere, gure ustez bi aldetarako on den konponbide bat proposatzen dugu:

Patronatu honek Tantirumairu elkarteak eraikuntza berri bat egiteko behar dituen lur sailak uzteko prest dago, eta kontratu berri bat sinatzeko ere. Baina, baldintza hauek kontutan izanik:

1. Kontratu berriak, oraingo kontratuan 2015 urterarte, bi aldeak harturiko konpromiso guztiak bukatutzak emango ditu.
2. Kontratu berria ez dira sartuko Fundazioaren Otxogorriena etxea eta lur sail guztiak, gaur egun ikastolari utziak daudenak.
3. Fundazioa prest dago Tantirumairu elkarteak eraikuntza berria egiteko behar dituen lurra uzteko.
4. Fundazioa prest dago Tantirumairu elkarteak eskatzen duen iraupeneko kontratua (30 urte edo gehiago) sinatzeko, eta bere garaian Irain Eskola Publikoarekin egin zuen modukoa. Fundazioak, horrela, Otxogorriena etxea bere egoitza izateko erabiliko luke, gaur egun ez baitu egoitzarik. Eta, bere fundazio-helburua betetzeko, hezkuntza eta kultur ekintzetarako ere (kantua, dantza, musika...), erabiliko litzateke, Lesakan ditugun beharrak kontuan hartuz. Beste ondasunen etekin ekonomikoak ere ekintza horietarako erabiliko litzateke, lesakarguzien onerako, eta, bere-



## Bota bertsoa

Ainara ETXABIDE (Lesakako bertso eskola) • Doinua: Habanera

## Sanferminak Lesakan

Egurdiko hamabiak  
altxaferoa airera  
musika entzuten dugu  
tanborrarekin batera  
peñak biltzen hasten dira  
Eskolttikiren parera  
Lesakan besta hasi da  
ta ezin bueltatu itxera  
Goizeko zortzi terdiak  
joan barra plaza aldera  
Ezpatadantzariekin  
ailetuz zubi parera  
Zubigainekoa eta  
gero bueltaka bandera  
hauxe da besta hauetako  
otorduko lehen platera.

Kolorezko blusarekin  
betetzen da tanborrada  
karrketan entzuten da  
soinua eta algara  
betizuaren adarrak  
sortzen baitute ikara  
Napoleones martxakin  
badator peñan bajada  
azken aurreko eguna  
haur guztientzat besta da  
hamarran Txakaintik betti  
doaz pausadaz pausada  
"Gaixoa ni" entzuten da  
kandel argiz mara-mara  
bigarren platera jan ta  
bestaz ongi ase gara.

xiki, behartsuenen onerako, Fundazioaren sortzezko espiritua betez. Proposamen honek Tantirumairu elkarteak adierazi dizkigun eskaera eta beharrak eta kontu guzti honek gure herrian sortu dituen arazoak konpontzen ahal dituela uste dugu. Fundazioak argi uzten du Lesakako bi ikastetxei bere laguntza ematen diola, eta modu berean, biei behar dituzten lurra uzten baitzikie eta biek baldintza berdineko kontratua sinatzeko prest baitago, Eta, azkenik, Otxogorriena etxea Fundazioaren egoitza moduan erabiliko litzateke eta, lehen aipatu dugun erabilerarekin, lesakar guztiak probestu dezaten. Badakigu proposamen hau ez dela akaso denen gogokoa izanen, baina, patrono moduan gure ardura Fundazioaren helburua beteaztea da, eta baita, lesakar guztien alde eta elkarbizitzaren alde egi-

tea, eta horretarako proposatu dugun konponbidea zuzena dela uste dugu. Har ezazue gure agurrik beroena eta jakin ezazue zuen erranetara gaudela.

Josu Goiari  
erantzuten

Javier M<sup>a</sup> IRAZOKI AGESTA  
Jose Juan LANZ APEZTEGIA

Zure idatzietan zehatzagoa izan beharko zenuke, horrela nahasketari biderik ez emateko. Adibidez, erraten duzu "Botxo eta Javier Mariaren etxearen arteko arbola bota zutenean...". Zati horretan gutxienez 40 arbol bota dira, gehienak 100 urte ingurukoak. Erraten duzu zure agintaldian ez zela egin poligono berria. Guk erraten dugu poligono berriaren lehen-dabiziko nabea (Rotec)

zure agintaldian egin zela, eta orain aipatuko ditugu, garai horretako dokumentazioa begiratu ondoren, ikusi ditugun irregulartasun batzuk:

1. 2001eko maiatzaren 2an, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren (BON) 54. zenbakian publikatu zen Aceralia Rotec enpresaren Xehetasun Azterlanaren behin betiko onarpena. Haren 4. puntuan zuk agintzen duzu erregistratu behar dela partzelaren egoera berria (zesioen ondoren). Xehetasun azterlanaren zesioetako bat Zalaingo bide berria zen. Orain diozu bide hura errespetatzearen aldekoa zirela. Zergatik ez zesio hura rezepzionatu eta erregistratu bide publiko bezala? Gure ustez, zesioaren ondotik bide horrek industriagunetik bereiztuta egon beharko luke.
2. Rotec enpresak obra baimena eskatzean (Udalan jende aurrean

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57



## Irakurleak mintzo

jarri zen proiektuan) 41x25 metro agertzen dira=1025 m<sup>2</sup>. Eta erre-  
alitatean 9 x25 m. erai-  
kitzen dira=2.275 m<sup>2</sup>.  
Doblea baino gehiago!!  
3. Proiektuan, fabrikak  
Zalain aldera ez zuen  
aterikan ("ingurumena-  
ren gaineko eragina"  
guttitzeke), baina erre-  
alitatean bi ate haundi ire-  
kitzen ditu juxtu Zalaingo  
bizilagunentzat utzi-  
tako bide horren alde-  
ra (industriagunetik  
aparte dagoen bide pu-  
blikoa, indarrean dago-  
en Udal Planaren ara-  
bera; "Plano 003. Usos  
en suelo urbano"). Bi ate  
haundi horiek idekitze-  
an, paisaiaren eta ingu-  
rumenaren gaineko era-  
gina areagotzen da, 3  
txandetan lanean ari-  
tzen baitira ateak ireki-  
ta (metalezko tuboak  
ebakitzeko fabrika), za-  
borrerako eta txatarra-  
rako kontenedore haun-  
diak kanpoan jartzen di-  
ra, bidearen bazterre-  
an, eta ibilgailu indus-  
trialiek auzoko bidearen  
gainean maniobratzen

dute. Laburbilduz, za-  
rata asko eta eragozpe-  
nak bizilagunentzat.

4. Jarduera baimena  
1.101,25 m. karratura-  
ko eman zen (tailerra eta  
bulegoak), baina erre-  
alitatean nabe osoa era-  
bili zuten jarduerarako  
(2.275 m<sup>2</sup>). Hau da: na-  
bea haundiagoa egite-  
an, jarduera baimena  
emateko bete behar zi-  
tuzten baldintzak ez zi-  
tuzten betetzen.

5. Eskatutakoak baino  
metro gehiago eraiki-  
tzerakoan (eskatutakoa,  
41 m. luze; eraikitakoa,  
91 m. luze), eraikinak  
gainditzen du garai ho-  
rretan indarrean zeuden  
Arau Subsidiarioen "li-  
nea edificatoria" dela-  
koaren marra.

6. Urteetan lanean ari-  
tu da (gau eta egun) arau  
asko errespetatu gabe  
(zaratenak, besteak  
beste) eta hau Irekiera  
Baimena eskatu gabe.  
Hau da zalaindaren alde  
egin duzuna? Onar-  
tu beharko duzu Zalain  
auzoaren hondamen-  
diaren arduradunetako

bat zarela.

Zure agintaldian Zalain  
auzoko industria ere-  
mua aldatu egin zen.  
Arau Subsidiarioen pla-  
noetan beti Zalaingo  
parkeak 2 sarrerekin  
aurreikusten da. Orain  
indarrean dagoen Udal  
Planean bat bakarrik  
dauka. Aldaketa hau  
industria eremua etxe-  
bizitzen aldera zabal-  
tzen delako gertatzen  
da. Hau argiago ikusi-  
ko duzu Udalean doku-  
mentu hau begiratzen  
baduzu: R.E. 1 unitatea  
Hirigintza. Registro 957,  
09/05/2011.

Barianteko kontuak ai-  
patzen dituzu... Zu bal-  
din bazara barianteari  
hor bi kurba marraztu  
zenizkiona, jakin behar-  
ko zenuke N-121-A ko  
puntu beltzetako bat  
marraztu zenuela.

Lekzio bat ikasi dugu:  
luparekin begiratu be-  
har direla dokumentu  
guztiak, kontrastatu  
Arautegiarekin, erne  
egon Ohar-taulari eta  
Boletinari, eta ezin ga-  
rela fidatu politikoe-  
kin.

## Prentsarik bildutakoak



«Ofizio zaila da bertso-  
laritza, baina aberasga-  
rria. Besteari entzuten  
ikasi behar da, eta  
arrazoituz azkar eran-  
tzun, argudiatu, bestea-  
ren lekuan jarri, eta hitz  
gutxitan gauzak esan,  
hitzak neurtuz, errima-  
tuz eta kantatuz. Ongi  
eginez gero, mirarixto  
bat, jolas zoragarria (...)  
Lagun mordoa, zenbait  
festa (...) eman dit, Na-  
farroako euskaltzaleak  
ezagutzea eta jendeari  
beldurra galtzea».

**Migel Mari ELOSEGI**  
Leitzako biologoa-bertsolaria  
HITZA, 2011.06.10



«Irungo bestetako agu-  
rra erratea niretzat  
gauza berria izanen da:  
maite ditudan pertso-  
nak hurbil izanen ditut  
eta erraxa izanen da  
emozionatzea, beraz  
testu tiki bat izanen  
dut aitzinean, seguru-  
suna emateko. Baina  
nahiago dut inprobisatu  
eta momentuan burura  
datorkidanaz solastu...  
17 urte daramazkit  
Irunen bizitzen eta  
seme-alabak irundar  
peto-petoak dira».

**Julian IANTZI**  
Lesakako TB aurkezlea  
D.VASCO, 2011.06.11



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net

## KULTURA

LITERATURA → LEHIAKETAREN XXII. EDIZIOA

# Euskarazko lehiaketei dagozkien hainbat sari eskuratu dituzte eskualdeko ikasleek

Sei modalitateetan banatu dira sariak

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako ikasteetean 2010-2011 ikasturtean antolatutako euskarazko lehiaketei dagozkien sariak banatu zituen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako jarduneko kontseilari Alberto Catalanek ekainaren 10ean Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan. Ekitaldian, Catalanekin batera, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako jarduneko zuzendari orokor Teresa Aranaz Jimenez izan zen.

Lehiaketaren XXII. edizio honetan, guztira 30 sari banatu ziren ondorengo modalitateetan: poesian (sei sari); narratiban (sei sari); *Pedro Diez de Ulzurrun* deklamazio-lehiaketa, irrati-gidoia eta podcastetan (lau accesit); *José María Satrustegi* etnografia-lehiaketan (sari bat) eta bertso-idatzian (hamabi sari). Sari bakoitzari honako hauek eman zitzaizkion: diploma bat, garaikur bat, saritutako obren DVD bat eta sariaren bonoa (100 eta 175 euro artekoa narratiban, poesian eta bertso-idatzian, eta 350 euro artekoa deklamazio, irrati-gidoi eta bideo-grabazio modalitatean, azken hauetan lanak taldekakoak baitira).

Lehiaketa guztiak kon-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Euskaraz egindako lanengatik saritutako ikasleak Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan hartu zituzten sariak.

tuan hartuz, 1.494 lan aurkeztu dira, guztira, eta lan horietatik 308 narratiba modalitatekoak izan dira; 153 poesioak; 1.015 bertso-idatzitakoak; 15 deklamazio, irrati-gidoi eta podcast lehiaketari dagozkion ikasle-taldek egindako grabazioak dira; bi bideo-grabazioak dira eta beste bat etnografia-lan bat. Saritutako ikasleak Nafarroako 15 ikastetxetakoak dira eta tartean daude, Berako Toki Ona institutua eta Labiaga ikastola; Baztan ikastola; Leitzako Erleta eskola eta Amazabal institutua; eta Lesakako Tanti-rumairu ikastola eta Ira-in eskola.

## SEI MODALITATEETAKO SARITUAK

Narratibako modalitatean hauek izan dira sarituak: Neskur Etxenike, Aimar Lopez, Johana Ramirez, Malen Eizaguirre, Haizea Goldarazena eta Maddi Mikelarena.

Poesian: Andrea Abad, Aitziber Iratzoki, Izaskun Armendariz, Unai Labat, Iñigo Urzain eta Garazi Larrañaga. Etnografia-lehiaketako saria Carlota Casajus eta Lina Unzuereztzat izan da.

Deklamaziokoa, Arkakuso taldearentzat eta irratiko sariak, berriz, Ilargia, Bardeak eta Arrobi taldeak jaso dituzte.

Bideo-grabazio modalitatean, Plastika productions-eko taldekideak saritu dira.

Azkenik, bertso-idatzien lehiaketan honako hauek izan dira saritutako ikasleak: Xabat Illarregi, Uxue Mesa, Oier Ariztegi, Paulo Ramos, Beñat Altzelai, Joanes Illarregi, Urki Txoperena, Alaitz Astiz, Xabat Matxikote, Aina-rra Etxabide, Endika Legarra eta Mikel Lasarte.

Lehiaketa hauen helburua sormena eta adierazkortasuna sustatzea da, bai eta ikastetxeen eguneroko lana sendotzea ere ikasleen hizkuntza-gaitasuna aberasteko.

## ARRANTZA

39 izokin arrantzatuta itxi da aurtengo denboraldia

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu-ko Ingurumen Departamentuak bukatutzat eman du Bidasoa ibaiko izokin arrantzaren kanpaina. Ekainaren 8an arrantzatuta zen 39. izokina, hori baitzen aurtengorako baimendutako gehieneko kopurua. Aurtengo kanpaina maiztaren 1ean hasi zen eta egun berean arrantzatuta zen *Lehenbizikoa*, Jose Mari Mitxelenak egin zuen. Azkena, berriz Jose Martinez Iruere eta 5,820 kilo eta 82 zentrimetroko izokina arrantzatuta zuen. Denboraldi honetako izokin handiena Ernesto Gaintzak harrapatu zuen, zortzi kilo eta 91 zentrimetrokoa. Ekainaren 2a izan zen arrantzako egun onena, sei izokin arrantzatuta baitziren. 2010-eko azaroan 500 izokin kontatu ziren Berako arrain hazkuntza zentruan. 2009an baino gehiago kontatu zituztelako ezarri zuten muga 39 izokinetan. 40 zentrimetro baino gehiago neurtu behar dute. Lehengo urtean 20 izokin-koa izan zen muga.

**BERTSOLARITZA** → **ESKOLARTEKO TXAPELKETA**

# Maddalen Lopezek irabazi du 14 urtez azpikoen Nafarroako txapelketa

Bigarren aldiz lortu du txapela Lesakako gazteak

## TTIPI-TTAPA

14 urte arteko Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ekainaren 5ean jokatu zen Larrainzarren eta hantxe lortu zuen Maddalen Lopez lesakarrak bigarren urtez txapela. Biga-

rren sailkatua Doneztebeko Beatriz Maritorea izan zen. Hala, bi bertsolari gazteok Nafarroako ordezkariak izan ziren ekainaren 18an Agurainen egiteko azen Euskal Herriko txapelketan.

Parte hartu zuten gainerako bertsolariak hauek izan ziren: Enaitz Telletxea (Igantzi), Maiana Sein (Igantzi), Joanes Ilarregi (Leitza), Beñat Altzelai (Leitza), Saioa Mateorena (Leitza), Xa-



ARGAZKIAK: BERTSOZALE ELKARTEA

14 urtez azpikoen txapelketako bertsolariak eta Bertso Eskolen Egunean parte hartu zutenak.

bat Ilarregi (Leitza), Oier Altzelai (Leitza), Unai Muro (Berriozar), Manex Mailharin (Berriozar) eta Amaïur Gindeo (Iruñea).

## BERTSO ESKOLEN EGUNA

Egun berean egin zen Nafarroako Bertso Eskolen eguna ere eta 50 bat gaztetxo elkartu ziren.

Bertso Eskoletan ari diren helduek ere, euren Bota Eguna egin zuten hilaren 11n Lekunberrin eta Astizen.



## IRAILEAN, HIZKUNTZA-ESKOLA IREKIKO DUGU LESAKAN!

### INGELESA eta FRANTSESA

- HAURRAK, 4 URTETIK AITZINERA
- HELDUAK
- ENPRESAK
- AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKETA
- HIZKUNTZA-IKASTAROAK ATZERRIAN

Informazio gehiagorako, jarri gurekin harremanetan (Jeremy eta Idoia):  
**948 637 062** edo **607 269 231**  
Koskontako bidea 11, beheka LESAKA (Mastegi Futbol-zelaiaren parean)

**MATRIKULA IREKIA**

**EUROCENTRES**  
Language Learning Worldwide

## BERA

HEZIKETA → PRODUKTU EKOLGIKOEN ALDEKO URRATSA

# Baratze ekologikoa nola egiten den ikasteko aukera izan dute ikastolan

Ingurumen gaietan haurrak sentsibilizatu nahi izan dira

### TTIPI-TTAPA

Gazte gaztetatik haurrek elikadura eredu osasungarri baten berri izan dezaten, Aiala Zubieta eta Marga Matxiarena herri-tarrak izan ziren Labiaga ikastolarari beraien baratze ekologikoarekin lanketa bat egitea proposatu ziotenak: «garrantzitsua iruditzen zaigu umeak ttikitatik ingurumen gaietan egoki hezitzea eta

hor ikusi genuen Euskal Herrian ekonomikoki nahiz soziokulturalki hain garrantzitsua izan den nekazaritza umei hurbiltzeko aukera. Helburua umeak ongi pasatuz eta naturarekin kontaktuan egonik, gai hauetan sentsibilizatzeari da. Ikastolari proposatu genion ea gurekin lanketa bat egin nahi ote zuten eta erantzuna baiezkoa izan zen», kontatu digu Zubietak.

Maiatz aldera hasi ziren ikasleekin lanean. Lehen Hezkuntzako ikasleekin lau saiotan banatuta dagoen urte osoko proiektu bat dute eskuar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Baratze ekologikoa nola egiten den ikasi dute Labiaga ikastolako ikasleek.

tean, urtaro bakoitzeko bat. «Helburua, ikasteaz gain, ongi pasatzea denez, baratzeri eramanen ditugu ikasleak. Hasieran azalpen batzuk ematen dizkiegu urtaro horretan baratzean egiten denari buruz, eta gero, beraiek praktikan jartzen dute». Hala, letxugak landatu edota lekak ereiteko aukera izan dute. Hori bai, beti «pozoi ordezko bertz alternatibak praktikan jarri». Eta gerora, uzta jasoko dute, eta hazi-

tegiak egin eta zaindu. Eta DBHko ikasleekin, ikastolan egin dute saioa, azalpen eta jolasen bidez baratze ekologikoa nola egiten den esplikatu. Baratzean ere ibili dira guztia praktikan ikusteko.

Orain arte eginikoarekin kontent dago Zubietak. Are gehiago, ikasleek «hagitz harrera ona» izan dutela kontuan hartuz. «Bi taldeak adi egon dira eta joko, praktika eta edozein galdera egiterakoan parte hartu dute.

Hagitz esperientzia ona izan da, guretzat behinik behin bai».

Ikasturte honetako bukatutzat eman badute ere, badituzte asmo gehiago. Lehen Hezkuntzakoekin oraindik lehen saioa egin dute eta hurrengo ikasturterako hiru saio falta zaizkie. Horrez gain, «hurrengo urte begira, bai DBH eta bai Lehen Hezkuntzakoekin ere, aukerarik bada, segitzeko asmoa daukagu». Hala erran digu Zubietak.

## BORTZIRIAK

EUSKAL PRESOK → MENDI IRTEERAK PRESOEN ALDE

# Bortz herrietatik Frainera presoan aldeko mendi martxak egin dira

Bildutakoek espetxe politika salatu dute

### TTIPI-TTAPA | BORTZIRIAK

Bortziritako herrietatik euskal preso eta iheslari politikoen aldeko mendi martxa egin zen Frainerat joan den maiatzaren 29an.

Arantzatik *Isolamendurik ez!* lemapean, Beratik *Biziarri zigorri ez!*, Etxalartik *Iheslariak etxerat!*, Igantzitik *Euskal presoak etxerat!*, eta Lesakatik *Iñaki askatu!* lema-ekin, herriko semea den Iñaki Fagoagaren askatasuna aldarrikatzeko. Fagoagak zigorraren hiru laurdenak beteak ditu, beraz, legez kalean behar luke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Frango kaxkoan bat egin zuten bortz herrietatik abiatutako mendi ibilaldiek.

Eguerdia aldera Frain kaxkorat ailegatu ziren. Txalapartaren doinuarekin hasi zen ekitaldia, eta ondotik inguruko euskal preso eta iheslari senide eta lagunei aurrekoa dantzatu

zitzaien. Segidan, Anmistiaren Aldeko Mugimenduko kide batek hitza hartu zuen, euskal preso politikoen kontrako espetxe politikoa gero eta makurragoa dela salatuz, eta horrekin

akautzeko modu bakarra herri presoia areagotzea dela aldarrikatu. Asteotan egitekoak ziren *Egin dezagun bidea* deitutako herri bazterretara joateko gonbitea egin zen.

UDAL ZORRAK → 2010 BUKAERAKO DATUAK

# 21,4 milioi euroko zorra dute eskualdeko 18 udalen artean

25etik zazpi udalerrik ez dute inongo zorrik

## TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPAren Hego Euskal Herriko eremuan dauden 25 udalerrietatik 18k 21.395.000 euroko zorrekin itxi zuten 2010a. Hala ondoriozta daiteke Espainiako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Ministerioak aurten argitaratu dituen datuetatik. Datu hauek 2010eko abenduaren 31koak dira eta 2009 hondarrean iturri berak emandako datuekin konparatuz, 106.000 euro gehiago zor dituzte inguruko udalerriek.

Hainbat arrazoi egon daitezke udal bakoitzaren zor mailaren gibelean: finantzazio desgokia, azpiegiturretan obra haundiak egin izana... Zorrik ez izatearen arrazoiak, berriz, inbertsiorik egin ez dutelako ere izan daiteke.

## ZORRIK HAUNDIENA HERRI HAUNDIENETAN

Txostenaren arabera, zorrik haundiena du-

tenak herririk haundienak dira. Baztan dago lehen postuan 2009 hondarrean baino 240.000 euroko zor haundiagoarekin. Gibeletik du Lesaka aitzineko urtean baino 724.000 euro haundiagoko zorrearekin. Leitza hirugarren 394.000 euroko zor tikiagoarekin eta ondortik Bera, 2009an baino 120.000 euroko zor tikiagoarekin.

Dena den, biztanleria kontuan hartuz Zugarramurdi (3.321 euro biztanleko), Lesaka (1.994 euro biztanleko), Areso (1.181 euro biztanleko), Urdazubi (1.114 euro biztanleko) eta Baztan dira (1.031 euro biztanleko), hurrenez hurren, zorrik haundiena dutenak. Eta diru sarreren arabera ere aldatu egiten da kontua. Ez baita berdina diru sarrera haundia duten udal batzuek zor altua izatea, edo sarrera tikiagoa dutenek (zerga guttiago, adibidez) zorra izatea.

## ZORRIK EZ DUTENAK ZAZPI DIRA

2009ko abenduaren 31n zortzi ziren urtea zorrik gabe itxi zuten



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Udalek biztanle bakoitzeko duten zorraren arabera, Zugarramurdi da haundiena duena.

HERRIA	ZORRA EUROTAN	BIZTANLERIA	ZORRA BIZTANLEKO
ZUGARRAMURDI	704.000	212	3.321
LESAKA	5.628.000	2.822	1.994
ARESO	327.000	277	1.181
URDAZUBI	402.000	361	1.114
BAZTAN	8.335.000	8.081	1.031
SUNBILLA	554.000	670	827
ARANTZA	480.000	647	742
LEITZA	1.911.000	2.934	651
IGANTZI	375.000	632	593
OIZ	84.000	151	556
ERATSUN	78.000	159	491
ETXALAR	395.000	827	478
ITUREN	226.000	502	450
BERA	1.272.000	3.730	341
DONEZTEBE	474.000	1.688	281
URROZ	46.000	190	242
BERTIZARANA	101.000	647	156
ELGORRIAGA	3.000	221	14
ARANO	0	122	0
BEINTZA-LABAIEN	0	249	0
DONAMARIA	0	438	0
EZKURRA	0	163	0
GOIZUETA	0	778	0
SALDIAS	0	116	0
ZUBIETA	0	315	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.395.000</b>	<b>26.932</b>	<b>579</b>

udalerririk: Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Ezkurra, Goizueta, Saldias, Urroz eta Zubieta. Aldi honetan, ordea, zazpi dira zorrik ez

dutenak. Urroz da zorrik gabe egotetik biztanle bakoitzeko 242 euroko zorra izatera pasatu dena. Gainerakoek berdin segitzen dute.

2008 hondarrean Elgorriaga ere euro bakar bateko zorrik ez zuen herria zen. 2009an, ordea, 10.000 eurokoa zuen eta 2010ean 3.000 eurokoa.

**BERA** Zere inguru klasa guztietako inektuz (xomorra, zinoerre, armiorma, kukuxu...) eta orretai xagutzuz garbitu osbi beduza, ditu! Termite eta Pipien tratamenduak

**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zainin, 42 A • BERA

artropak • maindireak mantak • nordikoak toallak • kortinak alfombra

**Goya**

Albana, 1 • Tel: 948 630 083

**ZUBIONDO** Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrrika

BERA NAFARROA

Tel: 945 55 472

## BERA

HEZIKETA → PRODUKTU EKOLOGIKOEN ALDEKO URRATSA

# Jangela ekologikoaren aldeko apustua egin dute ikasturte honetan Ricardo Barojan

Produktu ekologikoak sartu dituzte menuan

## TTIPI-TTAPA

Elikagai ekologikoen hezi nahi dituzte neska-mutikoak Ricardo Baroja eskolan eta helburu horrekin eta elikadura eredu osasungarria eskaintzeko eskolako jangelan produktu ekologikoak eskaintzeari ekin diote.

Ohiturak aldatzea izan da guztiaren abiapuntua: «mundu ero hau aldatzeko pausuak eman behar ditugu, eta herritarrok gauza batzuk egin ditzazkegu eta horietako bat, gure kontsumo ohiturak aldatzea da eta ahalik eta hurbilenekoak eta garbienak diren produktuak kontsumitzea». Horrela azaldu digu Amaia Goia Ricardo Baroja ikastetxeko gurasoak. Bere irudiko, «osasunaren aldetik denok dakigu zein onuragarria den horrelako eli-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ricardo Baroja eskolako jangelan elikagai ekologikoak sartu dituzte menuan.

kagaiak erabiltzea, pestizida eta produktu kimikoekin ekoiztutakoak erabili beharrean. Jangela eskolako bertze atal bat da eta gure haurrak elikadurak gure bizitzan duen garrantziaz jabetuta hezi nahi ditugu».

Oraindik gauza berria da eskolan, 2010/2011 ikasturte honetan egin baitute janari ekologikoaren aldeko apustua lehenbizikoz. Oraingoz «oinarizko elikagaiak» sartu dituzte menuan, lehenagoko elikagaiak, ekologikoak eta integra-

**BERTZE IKASTETXEEI DEIA**  
«Bertze ikastetxeak animatuko nituzke, pausoak eman eta ahal den neurrian horrelako produktuak erabiltzeko»

**Amaia GOIA**  
Ricardo Barojako gurasoa

lak direnekin ordezkatur. Etorkizunera begira, ekimena indartzen joan nahi dute: «gure asmoa ondoko urteetako elikagai gehienak ekologikoak izatea da. Datorren urte-

rako baratze ekologikoa martxan jarri behar dugu». Honela, lurrarekin harreman naturala berreskuratu nahi dute eta baratzeko produktuak jangelarako erabiltzeko asmoa ere badute.

Ikasturte honetan ekoizleari zuzenean erosita lortu dituzte produktuak: «Berako baratze-lak, Bortzirietakoak, Nafarroakoak... Modu honetan lortzen ez ditugunak produktu ekologikoen hornitzaileei erosi dizkiegu». Jangela ekologikoaren

ekimenarekin, gurasoek zein hurrek harrera ona izan dutela adierazi digu Ricardo Barojako gurasoak: «aldaketa hurrentzat hagitx onuragarria izan dela ikusita, hagitx jarrera ona izan dute gurasoek. Eta hurrek ere hagitx ongi erantzun dute. Batzuei hasieran arraroa egin zitzaie, baina ikasturte bukaeran hagitx balorazioa ona egin dugu».

Menuan elikagai ekologikoak sartzeak gastua igo egiten du, baina Goiaren ustetan, ez da hainbertzerakoa: jangela batean gastu gehiena pertsonalarena denez, elikagaietan %20 gehiago gastatzeak ez du halako igoera erran nahi».

Eta jangela ekologikoaren erantzunarekin pozik, bertze ikastetxeei luzatu die deia Berako gurasoak: «jangela zerbitzurako janaria bertan egiten duten bertze ikastetxeak animatuko nituzke, pausoak emateko eta ahal den neurrian horrelako produktuak erabiltzeko».

Eskolera igotzea... ez da oztopo!

**Behetik**

plataformak  
igogailu bereziak  
aulki bereziak...

Afarga-baki. 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888  
www.behetik.com

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**ERROTAZAR**

harategia

Bertako  
produktuak

Etzegara, 3 • BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

UDAL BERRIA → KARGU HARTZEA EKAINAREN 11N

# EAJren botoei esker Aralarko Marisol Tabernak hartu du alkatetza

UPNko zinegotzia ezagutu dute herritarrek

## TTIPI-TTAPA

Alkategai bozkatue-  
na ez izan arren, Aralar-  
ko Marisol Taberna iza-  
nen da heldu diren lau  
urteotan alkate. Bilduk  
eta Aralarrek launa zine-  
gotzi zituzten, baina Bil-  
duk 60 boto gehiago.  
EAJko bi zinegotziek ira-  
garri bezala, Aralarren al-  
deko bozka eman zuten  
ekainaren 11ko kargu  
hartze egunean eta ho-  
nela, Josu Irtzoki orain  
arteko alkateak Marisol  
Tabernari eman zion  
aginte makila. Ekitaldian  
UPNko zinegotzia eza-  
gutzeko aukera ere izan  
zen, zin egiteko formula  
gazteleraz irakurtzea es-  
katu baitzuen Juan Lo-  
sak. Beraz, hauek osa-  
tu dute Udal berria: Ara-  
larko Marisol Taberna,  
Jon Abril, Fernando Be-  
rasain eta Jaione Andue-  
za. Bilduko Josemari Te-  
lletxea, Garazi Taberna,  
J.M. Portu eta Andrea  
Gouraud. EAJko Santia-  
go Alzuguren eta Isido-  
ra Agirre eta UPNko Ju-  
an Losa.

## Helduen dantza ikastaroak

Gure Txokoa Dantza  
Taldearen eskutik egiten  
diren helduentzako dan-  
tza ikastaroak ohi baino  
beranduago izanen dira

aurten, irailean eta urrian.  
Ortziraletan eginen dira.  
Bertzalde, Saneste-  
ban besten aitzinetik egi-  
ten den Larrain dantza-  
ren entsaioan ez da alda-  
ketarik izanen. Bestak  
baino aste bat edo bi le-  
henagotik eginen dira.  
Entsaio hauetan edozei-  
nek parte har dezake.

## Gure Txokoaren zapiak

Sanesteban besteta-  
rako lepoko zapiak egi-  
tea erabaki du Gure Txo-  
koa elkarteak. Zapi go-  
rriak dira eta ekain bu-  
kaeratik aitzinera, bortz  
eurotan egonen dira sal-  
gai.

## Margo erakusketa

Gure Txokoa elkar-  
teak antolatuta margo era-  
kusketa izanen da lamo-  
tenean ekainaren 30era  
arte. Elkar-  
teak antolatu-  
tako margo ikastaroan  
ikasleek egindako lanak  
ikus daitezke ostegune-  
tan 19:30etik 21:30era  
eta larunbatetan 10:00-  
etatik 13:00etara.

## Institutuko 31 ikaslek gainditu dute selektibitatea

Toki Ona institutuko  
31 ikaslek gainditu dute  
aurten selektibitatea. Bi-  
garren batxilergoan  
2010-2011 ikasturtean  
40 ikasle izan dira eta 35  
ikaslek gainditu dituzte  
ikasketak ohiko deialdi-  
an eta horietako 32 aur-  
keztu ziren unibertsita-  
tera sartzeko probetara.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Datozen lau urteotan Udala osatuko dute ordezkariak.



ARGAZKIA: JESUSEN BIHOTZA IKASTETXEA

## Jesusen Bihotzako ikasleak Euskal Herriko azpitxapeldun

Ekainaren 11n jokatu zen Euskal Herriko Haur Kantari txapelketaren finala Haz-  
parnen. Guztira 120 haur aritu ziren oholtza gainean, bai kantuan eta bai kan-  
tariel lagunduz musika tresnekin. Finalisten artean, Jesusen Bihotzako Larun  
taldeak kantatu zuen –argazkian– eta bere mailan azpitxapeldun gelditu zen.



ARGAZKIA: LABIAGA IKASTOLA

## Harremanak sendotzeko lagunarteko futbol partida jokatu dute Labiaga ikastolak eta Sarako Olhain ikastolak

Sarako errugbi zelaian lagunarteko futbol partida bat jokatu zuten Sarako Ol-  
hain eta Berako Labiaga ikastoletako zenbait ikaslek ekainaren 4an. Futbol par-  
tida guraso batzuen ekimenari esker jokatu zen, Euskal Herriko bi aldetako  
haurren arteko loturak indartzeko beharra ikusita. Bi ikastoletako neska-muti-  
koekin osatutako taldeek ederki pasatu zuten, apartako giroarekin eta egural-  
di ezin hobek lagunduta. Azkenean, eta garrantzitsuena ez bada ere, sarata-  
rrek irabazi zieten Labiagakoei (6-3). Bukaeran bi ikastoletako gurasoek beren-  
dua prestatu zuten eta errebantxarako data jarri, hau Beran jokatu baita hu-  
rrengo ikasturtearen hasieran.

## LESAKA

HEZKUNTZA → PATRONATUAREN PROPOSAMENA

# Cornelia Lekuona Fundazioak Otxogorrienean kokatu nahi du bere egoitza

Lurrak uzteko baldintza, ikastolak gaur egun erabiltzen duen etxea eskuratzea da

Aitor AROTZENA

Cornelia Lekuona Fundazioa kudeatzen duen patronatua prest dago Tantirumairu ikastolari eraikin berria egiteko lur sailak uzteko eta kontratu berri bat sinatzeko. Baina kontratu horretan ez dira sartuko gauregun ikastolak ikastetxe bezala erabiltzen duen Otxogorrienea, ezta inguruko lur sailak ere. Horixe da Fundazioa kudeatzen duen patronatuak jarritako nahitaezko baldintza eta gainera, 25 urterako sinatu zen eta 2015ean bukatzekoa den kontratuaren bidez bi aldeek hartutako konpromiso guztiak bukatutzat emanen litzuzke «bere garaian Irain eskola publikoarekin egin zuten moduko» kontratu berriak.

Fundazioak, horrela, Otxogorrienea etxea bere egoitza bezala erabiliko luke, «gaur egun ez baitu egoitzarik» eta «bere fundazio-helburua betetz, «baita hezkuntza eta kultur ekin-tzetarako ere (kantua, dantza, musika...) erabiliko litzateke, Lesakan

horretarako toki egokien beharra kontuan hartuz». Tantirumairuk, beraz, berritik eraiki beharko luke ikastola, fundazioko patronatuak egindako proposamenaren arabera.

Gogoratu behar da, Tantirumairuk Otxogorrienea eta inguruko lurrrak erabiltzeko kontratua 30 urtez luzatzea eskatu zuela joan den urtean. Asmoa, «Otxogorrienea ondoan bertze eraikin xume bat egitea» dela aipatu zuten, lekua eskas gelditu baitzaie. Adibidez, egunero 52 haurrek bazkaltzen dute ikastolan eta sukaldaria eta jangela tiki gelditu zaie. Fundazioko Patronatuak erantzunik ematen ez zuela ikusiz, ikastolaren eskariarekin bat egin zuten azaroaren 27an udalak ahobatez. Kontratu luzapena, 2015eko Nafarroa Oinez herrian egiteko Nafarroako Ikastolen Elkarteak jarritako baldintza zen.

Patronatuaren proposamen berriak ezinezona sortu du ikastolako guraso eta irakasle-en artean, baina afera ongi hausnartu eta erantzun bat aitzinerago emanen dute. Herriko kultur taldeek ere bilerak egin dituzte gaia lantzeko eta argi utzi nahi izan dute beraien jarduerak ez dutela Fundaziorekin inolako zerikusirik.



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

## Irain Eskola Publikoa saritu dute Piki Sarietan

Internet Egunaren baitan *Piki basoko etxolan* webgunearen bitartez parte hartu ondotik, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe onenaren Piki Saria jaso du Irain Ikastetxe Publikoak, bere lanen kopuru eta kalitatearengatik. Aurten 14 ikastetxeko 500 ikaslek hartu dute parte, iaz baino %30 gehiago.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

## Peio Etxabide da alkate berria

Ekainaren 11ko inbestidura saioan alkate kargua hartu zuen Peio Etxabidek. Bilduko 6 zinegotzien botuak jaso zituen eta PNVko 5 zinegotziek Jose Luis Etxegaraireren alde egin zuten. Etxabidek, «krisi garai honetatik ateratzeko denok elkarrekin lan egiteko borondatea» erakutsi zuen kargua hartutakoan.

EUSKARA → «LESAKAN EROSKETAK EUSKARAZ» IZENBURUPEAN

# San Juan bezperako ekitaldia prest du Euskara Batzordeak

A.A.

Azken urteetako ohi-turari utsiz, San Juan bezperan ekitaldi berezia antolatu du Euskara Batzordeak. Aurten, *Lesakan erosketak euskara* izenburupean zori-nak eta mila esker eman nahi dizkiete euskararekin konpromisoa hartu

duten denda, zerbitzu eta ostatuei. Zehazki, euskararen aldeko pauso ohargarriez ari da Euskara Batzordea, herritarrok hobekuntza gisa antzematen ditugunak. Lehenbiziko hitza euskaraz errateko ohitura, agiriak eta fakturak euskaraz egitea, errotulazioa eta

papertegia euskaratzea, barne dokumentuak, kontratuak eta nominak euskaraz izatea...

19:00etan Arretxea eta Ote karriketan etxeren izenak paratuko dituzte eta 20:00etan komentuan ekitaldia, berrendua, San Juan sua eta jaialdia izanen dira.



UDALBATZA BERRIA → KARGU HARTZEA EGIN DA

## 18 urtez alkate izana den Miguel Mari Irigoienek hartu du alkate kargua

Udal batzarrak hileko azken ortzegunetan eginen dira

### Irune eta Itsaso

Ekainaren 11z geroztik, Miguel Mari Irigoien da alkate berria. Egun horretan hartu zuten kargua bai berak eta bai sei zinegotziek ere. Herri Taldeak eta Etxalarko Independenteek hiruna zinegotzi zituzten eta Etxalar Aintzinerat taldeak bakarra. Azken honek txurrian bozkatu zuen eta bertze bi taldeek euren zerrendaburuei. Beraz, Herri Taldeak 45 boto gehiago zituen, lehendik 18 urtez alkate izan den Miguel Mari Irigoienek hartu zuen aginte makila.

### LAN BANAKETA

Dagoeneko lanean hasia da udal berria. Hala, udal batzarrak hilabete azken ortzegunetan egitea erabaki dute, 18:00etan. Komisioak ere ortzegunetan eginen dira, lehenbiziko ortzegunetan kulturakoa, bigarrenean mendikoa eta hiru-

garrenean hirigintza eta zerbitzuak. Beti 18:00etan eta jendeari irekiak izanen dira.

Arlo bakoitzeko arduradunak ere zehaztu dira. Hirigintza eta zerbitzuetan Jose M<sup>a</sup> Maia eta Arantxa Zubieta izanen dira, kulturean Maite Irisarri, mendian Miguel M<sup>a</sup> Irigoien eta Pedro Galaregi. Eskola kontseiluan Udalaren ordezkaria Maite Irisarri izanen da (botoduna) eta Maria Mitxelena laguntzailea. Okindegiaz alkatea eta Maria Mitxelena arduratuko dira. Euskara Mankomunitatea ere alkatearen esku gelditu da eta UE-MA Ignacio Atondoren esku. Gizarte Zerbitzu eta Hiri Hondakinen Mankomunitateetako presidentea alkatea da.

### Sanjuan sua

Altxatak antolatuta, ekainaren 23a, Sanjuan bezpera, suarekin ospatuko da. Azken hiru urteotan bezala, plazan izanen da. Herritar guztiak suaren ingurura gonbidatuta daude 20:00etan, etxetik berendu-afaria hartuta.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA  
Ekainaren 11n hartu zuten kargua udal ordezkari berriek.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Jose txo Ariztegiaren gasna guztien artean hoberena

Giro ederrean joan zen XIX. gasa feria eguna. Lehiaketara 17 gasna aurkeztu ziren zonaldeetik. Epailereak goiz guztiko lana izan zuten gasna hoberena aukeratzeko. Epaimahaiko Ines Arana eta bere lankideak (Nafarroako Unibertsitateko laborategian jatorrizko izendapena duten produktuen dastapena eta sailkatze lanetan aritzen direnak) erran zuten, gero eta gasna hobeak aurkezten dira eta sekulako maila izan zen aurten. Honela gelditu zen sailkapena. Eskualdeko gasnari hoberena Jose txo Ariztegi herritararena izan zen (120 euro). Bigarren saria Urdazubiko Etxelekua gasnategiak eraman zuen (90 euro) eta hirugarrena Jose Mari Iriartek Baztangoa gasnarekin (30 euro). Herriko gasnen artean ere, Jose txo Ariztegiarena izan zen hoberena (60 euro) eta bigarren Isidoro Ariztegi gelditu zen (30 euro). Sari guztiek diruaz gain, trofeoa ere hartu zuten. Goizean argazki erakusketa egon zen ikusgai elizako arkupean, baita eskulan erakusketa ere Kultur Etxean. Gustura gelditu ziren antolatzaileak jendearen partehartze eta interesa zela eta. Eguerdiko trikitixa eta perkusio saioa eta arratsaldeko dantza saioa ere jendetsuak izan ziren.



ARGAZKIA: IZARO IRIBARREN

### Giltzarri Ttiki kantuan

Ekainaren 11n Bortziritetako Giltzarri Ttiki haurren abesbatzak kontzertua eskaini zuten Kultur etxean.

**USOA**  
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pertsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxe: 948 63 52 14 • ETXALAR

# IGANTZI

OSPAKIZUNAK → SANJUAN EGUNA

## Ortziral honetan egingen da Sanjuan Xarreko aurtengo lehenbiziko besta

Jubilatuak bazkaria egingen dute elkarteak

### TTIPI-TTAPA

Sanjuanak ailegatzearekin batera, tradizio haundiko besta egingen da Sanjuan Xarren. Herritarrak ez ezik, kanpoko jende aunitz biltzen dituena. Aurtengo gainean dugu, ortziral honetan baita Sanjuan Eguna, ekainak 24, eta horrekin emanen zaio hasiera Sanjuan Xarreko denboraldiari.

Egun horretan, 12:00etan Martin Legarra apezak meza emanen du eta ondotik herriko dantzariak euren saioa eskainiko dute. Ohiturak agintzen duen bezala, oinak busti eta hiru iturrietatik ura edateko aprobetxatuko dute eguna bildutakoek, baita tragoxkoa bat hartu, pintxoren bat jan edota erroskilak erosteko ere. Hortik aitzinera, uztaileko igande



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

### Lourdes Ibarluzea izanen da hurrengo lau urteotan alkate

Ekainaren 11n hartu zuten kargua udalbatza berriko ordezkariak. Geroztik, nahiz eta aitzinetik gauza jakina zen, Herri Taldeko Lourdes Ibarluzea da alkatea eta berekin batera taldea osatzen duten sei zinegotziak Imanol Reteigi, Joxepa Etxeberría, Urtzi Loiarte, Joxean Ortega, Angel Urtxegi eta Ismael Iturbide dira.

guztietan meza izanen da Sanjuan Xarren, 12:00etan.

### JUBILATUEN BAZKARIA

Urtero bezala, jubilatuek bazkaria egingen dute Sanjuan Egunean. Meza entzun ondotik, 14:00etan zahar etxean bazkalduko dute eta

bazkarira joan nahi dutenek juntakoei jakinarazi beharko diete. Bazkaldu ondotik, Joxeanjel akordeoilariarekin dantzaldia izanen da.

60 lagun inguru bildu ohi dira egun horretan. Gainera, berezia izaten da egun hori erretiratuentzat. Udalak eta

zahar etxeak bazkariaren zati bat ordaintzen dute eta gainerakoa bazkideek eurek egingen dute.

100 bat bazkide dituzte gaur egun elkarteak eta juntan sei kide dira. Jose Arburua lehendakaria da, Amalia Sein lehendakariordea eta bo-

kalak, berriz, Carmen Hita, Migel Hita, Manuella Sein eta Esperanza Eltzaurdia. Urtero kideen erdiak berritzen dira zuzendaritza batzordean.

### Igerilekuko lanak

Igerilekuko mantentze, garbiketa eta funtzionamendu lanez arduratzeko deialdi bat baino gehiago egin behar izan ditu aurtengo Udalak arduraduna kontratatatzeko. Finkatutako epeetan ez zen proposamenik aurkeztu, baina azkenean Anuntxi Txoperena Matxikote herritarrari esleitu zaizkio lanak, 1.900 eurotan.

### AKATS ZUZENKETA

Aitzineko aldizkarian, udal igerilekuak ekainaren 15ean irekitzekoak zirela argitaratu zen, baina konturatu zinetenez, lehenagotik zabaldu zituen ateak. Ekainaren 11n ireki zen eta irailaren 10era arte horrela egonen da.

**sarobe**  
gozategia ostindaga

27 de entegara 25 bajo  
34760 Bera (Nafarroa) 1948 63 06 99  
www.sarobe.net

**BOZZ-AID**

PAVIMENTADIA

010 41 71 98 033 • (EBA)

**Javier Manterola**

Tekniko instalatzailea

Iturgintza • gasa  
kalafakzioa

Tfnoa: 629449602 • BERA

**F. LANCHAS**

Akudatzaileak eta berriztatzaileak  
Parket eta parket flotatzailerak  
Jartzaia

Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

**fitotecnia**

www.fitotecnia.es

- Aholkularitza teknikoa
- Baratzeko landare eta haziak
- Lore hazi eta bulboak
- Sasoineko loreak
- Lurra
- Grow shop
- Produkto fitosanitarioak
- Herbizidak
- Fungizidak
- Akarizidak
- Abonoak

Bidasoa, 66 | Bera (Nafarroa)  
(0034) 948 631 333 fitotecnia@fitotecnia.es

AISIALDIA → UDAKO OPORRETAN

## Uztailaren 4tik 29ra udalekuetan izanen dira 15 neska-mutiko

Hiru orduko  
saioak izanen  
dituzte

### Nerea ALTZURI

Ikasturtea akautzean dago eta aste honetan eskolako ikasleek udako oporrak hartuko dituzte. Horrela, irailera bitarte, bi hilabete pasatxoko atsedenaldian izanen dira. Mugimendua nabaritutako da inguruetan, gazetxoak dauden bazterrak nabarmenak baitira. Uztailean 15 neska-mutikok goizetako entreenimendua izanen dute. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Dindaia fundazioarekin batera udaleku irekiak antolatu baititu uztailaren 4tik 29ra bitarte. 10:00etarako bilduko dira eta egunez egun hainbat gauza eginen dituzte.

### Pelle-ttiki

Urte bat eta hiru urte bitarteko zortzi haurtxok ikasturtearekin segituko dute uztailean. Beurek ere, gauza aunitz egiten dute goizetan Koldobike Gorostiza hezitzailearekin. Abuztuan, haur eskolak atseden hartuko du.

### Barnetegiak

Uda ailegatu orduko, AEK-ko barnetegiak izaten dira. Aterpean, guzia prest dago uztaila eta abuztuan barnetegiak hartzeak. Lau talde izanen dira, lau hamabortzalditan banatuta.

Bertzalde, AEK-k Euskal Herria oinez nahiz bizikletaz gurutzatzeko egonaldiak antolatu ditu. Bizikletarena, uztailaren 30ean Urduñan hasiko da eta abuztuaren 14an Zarautzen akautu. Azken urteetan bezala, etapa baten bukaera eta hurrengo eguneko etaparen hasiera Arantzan izanen da.

Antolatzaile batekin solasteko aukera izandugu eta herriko harreragoraiatu zuen behin baino gehiagotan. Antolatzaren bada, jakin ezazue, AEK ibiltariak txirrindulariak ekarriko dituela herrira abuztua hasieran.

### Martinkorda Finlandian

Ekainaren 11n, ETB 1eko *Finlandia* saioan Bordalarreako Martinkordako belagaietan baztandarren *desapiyua* ikusi ahal izan genuen. Bi taldeak ardi mozten



ARGAZKIA: G. PIKABEA

### Jaime Iturriak hartu du alkate kargua

Ekainaren 11z geroztik, Bilduko Jaime Iturria da alkate berria eta hala izanen da heldu diren lau urteetan ere. Berekin batera, talde bereko sei zinegotziek egun berean hartu zituzten karguak.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

### Martin organujoleari omenaldia

Martin Ibarrolak merezitako omenaldia jaso zuen joan den maiatzaren 29an, organu berritzearen inaugurazio egunean. Herriko txistulari izateaz gain (iazko herriko bestetan omenaldia jaso zuen) organujole ere bada. Inork baino hobeki ezagutzen du elizako organua Martinek. Berak bakarrik jakinen du zenbat ordu eskaini dizkion instrumentu honi. Asteburuetako nahiz astetarteko ohiko, bestetako, hiletetako, ezkontzetako... elizkizun aunitzetan korukoan lagun izan da Martin. Ez bakarrik organua jotzen, baita kantari gisa ere. Urteetan borondatez egindako lana eskertzeko omenaldi xumea egin zitzaion Martini. Oroi-garria jaso zuen eta bere emazteari, Maria Josefari, lore sorta eman zioten. Eskerrak aunitz Martin. Orain aspaldixkotik, Gregorio Mitxelenak hartua du leku-koa. Astebururo herriko kantarien lana berak organua joz laguntzen du.

jarri zituzten eta helburua, ahalik eta ardi ile gehien zakuratzea izan zen.

Martinkordako Teodoro ere protagonista izan zen. Gure etxeetan pisatze-

ko erabiltzen den burdinazko pisua erabili zuen ile zakuak pisatzeko.

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
T. 948 637 260 - LESAKA

**J.RAMOS**  
zolak akutzilatatu eta  
barnizatzen dittut  
Sakelekoak: 637 836 023 - LESAKA

**ANSONEA** Jabetza  
Eguneko menua  
Menu begetarianoa  
Menu makrobiotikoa  
Plater korbinatuak  
Bokatak • Errazioak  
948 631 644  
Forsten plaza, 1 • BERA.

# SUNBILLA



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Udal ordezkari berriak, Amets Inda alkatea buru dutela.

UDALA → KARGU HARTZEAK

## Amets Inda izanen da alkate datozen 4 urtetan

Hileko lehen ortziraletan eginen dira plenoak

### Maider PETRIRENA

Ekainaren 11ko plenoan hartu zuten Udala osatu behar duten zinegotzi eta alkateak 4 urterako konpromisoa. Amets Inda izanen da alkate eta alkateordea, orain arte alkate izan den Pako Errandonea. Gai nontzeko karguak uztaizaren 1eko plenoan erabakiko dituzte. Plenoak hilabeteko lehenbiizko ortziraletan eginen dira 19:00etan.

### Antzerkia

Sunbilla, Donamaria eta Iturengo haurrek osatzen duten antzerki taldeak erakustaldia ekainaren 24an emanen du Doneztebeko zine- man.

### Igerilekua

Igerilekuen denboraldia ekainaren 15ean ha-

si da. Orduz egian aldaketa izan da: 11:00etan ireki beharrean 12:00etatik 20:00etara egonen da irekia. 3 urtetik goitiko haur eta helduentzat igeriketa ikastaroak izanen dira. Interesatuak deitu 948 450694-645 568 377 telefonoetara (Miren).



ARGAZKIA: KORO ZELAIETA

### Enaitz Portu txapelkun Errekako txapelketan

Erreka elkarteak laugarren urtez antolatutako lau t'erdiko buruz buruko txapelketako finalak jokatu ziren ekainaren 10ean Doneztebeko pilotalekuan. Enaitz Portu Zelaieta sunbildarrak bigarren mailako benjaminetako finala 18-9 irabaziz Oihan Sarrateari. Argazkian zein pozik ikusten zaion sariak eman zituzten Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea pilotariek.



ARGAZKIA: ALAITZ

### Eskolako neska-mutikoen eskulanak erakutsi dituzte

Ikasturtea akitzeko eskolako 3, 4 eta 5 urteko haurrek eskulanen erakusketa egin dute frontoian ekainaren 15ean, *Sunbillako Museo Ttikia* izenburupean. Ekainaren 21ean, azken eguna bezala musika eta gosaria egitekoa zuten goitiko eskolan. Argazkian 3 urteko ikasleak Ana Urroz tutorearekin eta 4 eta 5 urtekoak Ane Otxandorena tutorearekin ageri dira.

**OIZ ETA SALDIAS**  
Alberto San Miguelek segituko du Oizko alkate izaten eta Saldiasen alkate berria izanen dute

### TTIPI-TTAPA

Ezustekorik gabe joan ziren ekainaren 11n herrietako alkateen karguen hartzeak. Orokorrean, alkategai bozkatuenak izendatu ziren alkate eskualdean. 250 biztanle baino guttiagoko herrietan, alkate eta lau zinegotzi aukeratu zituzten, zerrenda irekien bidez. Honela, Oizen, Alberto San Miguel Midegiak segituko du alkate eta kargu horretan laugarren legealdia hasi du. Saldiasen, berriz, alkate berria izanen dute. Zazpi agintaldi egin dituen Pedro Urrutiaren lekukoa Jacinto Dominguez San Nazariok hartu du. Aipatu, Urrutiak 1971tik 1979ra, 1983tik 1995era eta 1999tik 2011ra izan dela alkate. Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Elgorriaga, Ituren eta Urrozen hemendik sei hilabetetara izanen dute udal hauteskundeak berriz egiteko deialdia

**ANTZUZELAI**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxa: 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com

Antzinaldeak, angeluak, orna antzinakoak, lehoiak, atak, arkuak, pilareak, tuminiak, entzaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

**ERREKALDE**  
PLAZA KONKURTAK  
PINTXAK  
BARRIOAK  
TFAXA: 948 630 259 BERA

**ERREKA KIROL ELKARTEA** → BURUZ BURU PILOTAN

# Erreka elkarteko 62 pilotarik parte hartu dute lau t'erdiko txapelketan

Txapelketaren laugarren edizioa izan da

## TTIPI-TTAPA

Erreka elkarteko pilota sailak laugarren urtez antolatutako lau t'erdiko buruz buruko txapelketako finalak jokatu ziren ekainaren 10ean frontoian. Guztira 62 pilotarik parte hartu dute txapelketan eta bederatzita final jokatu ziren.

**Bigarren mailako benjaminetan**, E multzoan Asier Arregik 18-11 irabazi zion Asier Gelbentzuri. D multzoan, Enaitz Portu nagusitu zen, 18-9 Oihan Sarraiteari irabazita. B multzoan, Ruben Saldiasek 18-12 irabazi zion David Mitxeori eta A multzoan, Gaizka Agirrek 18-8 irabazi zion Mikel Bangori.

**Bigarren mailako infantiletan**, Julen Saldias nagusitu zen, 18-8 Julen Indaren aurka. **Lehen mailako infantiletakoa** izan zen finalik berdinduena eta Iker Salaberriak 18-17 irabazi zion Aritz Fagoagari.

**Bigarren mailako alebinetan**, Gaizka Agirrek 18-15 irabazi zion Ibai Erasuni eta **bigarren mailako kadeteetan**, azkenik, Jabier Saldiasek 22-15 irabazi zion Iban Juanenari.

Finalen ondotik sari banaketa egin zen eta bertan izan ziren Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea pilotari profesionalak. Pilotariekin batera, Nafarroako Kutxako Javier Almandoz, pilotarekin harreman han-



ARGAZKIA: ZALDUA  
Finalistak, antolatzaile eta laguntzaileekin.

dia duen Javier Elizalde, Oskar Mindegia eta Avelino Mitxeo zinegotziak, Udalbideko Vicente Arozena eta BigMat Mendituriko Jose Manuel Juarena eta Arantxa Ezkurra han izan ziren.

## San Miguelen bosgarren legealdia

Ekainaren 11n hartu zuen Miguel San Miguel berriz alkate kargua eta beraz, bera izanen da bertze lau urtez herriko alkate. Honekin bosgarren legealdia hasi du, 1991tik 2003ra eta 2007tik 2011ra kargu horretan egona baita.

## Mendaur Institutua Elkartasun Eskola ekimenaren barne

Nafarroako Garapen Lankidetzarako Gobernu Kanpoko Erakundeak eta Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietako Sailak antolatuta, Nafarroako 15 ikastetxetan Elkartasun Eskolak izeneko ekimena landu da ikasturte honetan, eta parte hartu dutenetako bat Mendaur Institutua da. Helburua irakasle eta ikasleen artean elkartasuna eta lankidetzeta baliabideak indartzea da.



ARGAZKIAK: JOSEMARI TELLETXEA/ERREKA

## Antonio Etxeberria eta Vanesa Patxa garailu herri krosetan

Ekainaren 12an jokatu zen Erreka Kirola Elkarteak antolatutako XXXIII. Herri Krosetan. Eguraldi ona lagun, guztira 281 korrikalarik hartu dute parte. Maila nagusian gizonen artean Antonio Etxeberriak irabazi zuen 22 minutu eta 40 segundoko denborarekin. Emakumezkoen mailan Vanesa Patxak jantzi zuen txapela 13 minutu eta 13 segundoko denbora eginez. Mailaz maila honela helmugaratu ziren: **prebenjamin mutiletan** David Mitxeo izan zen lehenbiziko, **prebenjamin nesketan** Saioa Atxalandabaso, **benjamin mutiletan** Unai San Miguel, **benjamin nesketan** Izaro Aldabe, **alebin mutiletan** Karlos Ostiz, **alebin nesketan** Ainara Ilundain, **infantil mutiletan** Jon Erasun, **infantil nesketan** Leire Fernandez, **kadete mutiletan** Beñat Mitxelena eta **nesketan** Ane Elzaurdia. **Neska jubenetan** Ane Intxausti izan zen lehenbizikoa, **beterano mutiletan** Patxi Orofino eta **nesketan** Eva Zabalegi. **Herriarrei dagokienean**, mutiletan, Santi San Miguel izan zen lehenbiziko helmugaratutakoa, 2. Iñaki Irigoien eta 3. Patxi Goñi. Eta nesketan, Maria Telletxea izan zen bizkorrena, 2. Edurne Antzizar eta 3. Miren Juanotena.

# ITUREN

**SANJUAN BEZPERA → ORTZEGUN HONETAN**

## Sanjuan suaren ondotik dantza afrikarraren erakustaldia izanen da

Hori baino lehen berendu afaria eginen da

### Arkaitz MINDEGIA

Ortzegun honetan, ekainak 23, ohiturari segituz, Sanjuan suak eginen dira Iturenen ere eta horretarako aurreko egunetan herriko haur eta gaztetxoak etxez etxe ibili ohi dira papeira eta kartoia biltzen.

Aurtitzen hainbat txokotan egiten dira suak, Iturenen ere berdin, baina urteroko martxan, Ibintza Kultur Taldeak antolatuta berendu afaria eginen da, tripa bete eta saltoka aritzeko. Ez da horrekin akituko, suen ondotik, dantza afrikarren erakustaldia izanen baita, eta ea jendea animatzen den ikuski-zunaz gozatzera.



ARGAZKIA: ODEI AIOROA

### Jaunartzeak

Ekainaren 12an egin zuten Jaunartzea herriko bortz gaztetxo hauek. Estefania Etxebeste, Lorea Bazterrika, Mattin Altxu, Haizea Aioroa eta Oier Mariezku-renak egun ederra pasatu zuten familia artean.

### Gaztetxoak dantzari tiki egunean

Joan den ekainaren 4an, herriko dantzari gaztetxoak Agoitzen ospatu zen Nafarroako Dantzari Tiki Egunean egon ziren eta egun polita pasatu zuten. Dantzariak bi taldetan banatu eta inguruko herrietan ibili ziren. Iturengo dantza taldeari, Altsuko taldearekin batera Ekai herrian dantzaztea egokitu zitzaion, eta talde bakoitzak lauzpabortz dantza eskaini zituen. Gosaldu ondotik, Agoitzen elkartu ziren dantzari guztiak eta denak elkarrekin herrian barna kalejira egin zuten. Ondotik, futbol-zelaian elkarrekin dantzatu zituzten ohiko dantzak: Axuri beltza, Agurra, polka... Eta eguna akitzeko bazkaria eta joakoak izan zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko gaztetxoek ederki dantzatu zuten lehenbizi Ekai herrian eta gero Agoitzen.



ARGAZKIA: MIXEL GEREKA

### Ikasleak Kanaria Handian

Kanaria Handia uhartean gora eta behera, gelditu gabe ibili dira herriko eta inguruko eskoletako hainbat ikasle, Eskola Ibiltariak ekimenaren baitan. Zehazki Beintzako Mireia, Aitziber eta Jabier, Eratsungo Jasone, Saldiasoko Julen eta Ibai eta Iturengo eskolako Gurutze, Iratxe, Duba, Mikele, William, Hodei, Andoni, Zuriñe eta Ane ibili dira kanpoan. Madrilgo eta Cuencako ikastetxeetako ikasleekin 45 laguneko taldea osatu dute eta, bertzeak bertze, Maspalomas, Teror, Las Palmas, Roque Nublo eta Arauca bisitatu dituzte, baita platano ekoizpenak ikusi ere. Lehenbiziko aldiz hegazkina probatzeko aukera ere izan dute batzuk.



ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

### Joaldunak Beasainen 27. urtez

Aurtizko joaldunek Beasaingo bestetan beraien joare soinuak jo dituzte berriki. 27 urte daramatzate aurtiztarrek Beasaingo bestetako azken egunean joareak jotzen. Aurtengoan, beraiekin batera Euskal Herriko bertze txoko bateko dantzariak dantzan ibili dira, giro onean.

OSPAKIZUNAK → ASTEBURUAN

## Aurten bigarren aldiz gazta lehiaketa egingen da Besta-Berri egunean

Horrez gain, prozesioa ere berreskuratu nahi da

### Fermin ETXEKOLONEA

Joan den urteko arrakasta ikusita, aurten bigarren aldiz, gazta lehiaketa egitea erabaki du Udalak Besta-Berri egunean. Ez da, ordea, eguneko ekitaldi bakarra izanen.

Alde batetik, urteetan galdua izan den prozesioa berreskuratu nahi izan du herritar talde batek, eta horrela, meza eta prozesioa egingen dira aurten.

Horrez gain, ohitura den bezala, herriak Udalariaz bazkaria eskainiko dio. Udaltzatza sortu berriko kide guztiek Herriko Ostatuan bazkalduko dute Besta-Berri Egunean.

Arratsaldean, herriko gazten artean, lehiaketa egingen da. Eta ondotik, lehiaketara aurkezten diren gaztak aprobetxatuz, berendua eskainiko du Udalak plazan. Musika doinurik ere ez da faltako, herriko Aierrik taldea arduratuko baita bazterrak alaitzeaz.

Aipatu, gazta lehiaketan bi sari banatuko direla: irabazleak bi lagunendako afaria eskuratuko du Herriko Ostatuan eta bigarrenak bi botil ardo.

### Kargu hartzea

Beste herrietan bezala, ekainaren 11n hartu zuten kargua udal ordezkari berriek. Aldeko bost botori esker, Herriko Taldeko Patxiku Mitxelenak segituko du alkate izaten beste lau urtez. Eutsi taldeko bi botoak, bestalde, Jose



ARGAZKIAK: ANDREW SMITH

### 42 lagun Uritzako bazkarian

Eguraldi onarekin eta umore ederrarekin joan zen aurten seigarren aldiz egin den Uritzako festa. 42 lagun bildu ziren Iñaki Sanchezek egindako paella goxoa dastatzera eta Joxemari eta Olaiaren musika doinuekin berandu arte luzatu zen festa. Bazkalondotik herritar batzuk ere bisitan joan ziren Uritzako iturri ondora eta berendu-afaria ere egin zen. Gauerdian oraindik bazebilen jendea, giroa oso ona zen seinale. Dena den, aipatzekoa da, jendeak azken momentura arte utzi zuela bazkarirako izen-ematea eta horrek kezka eta buruhausteak sortzen ditu erosketak lehenagotik egin behar izaten baitira eta komeni delako aurretik jakitea zenbat lagunentzat egin behar den jatekoa. Ea hurrengoan garaiz ibiltzen garen...

Jabier Juanikorena hautagaiarentzat izan ziren.

### Sanjuan bezpera

Ohiturari segituz, Sanjuan bezperan sua egingen da plazan. Baina horrekin batera, mahaiak paratu eta berendu-afaria egiteko asmoa ere badago. Afalondon, 23:00 aldera piztu-

ko da sua nahi duenak salto egin dezan.

### Gazteguneko ikasturte bukaera

Azken hilabeteetan zabalik egon ondotik, hilabete honetan itxiko ditu ateak Gazteguneko Udanean, bestela ere, aisialdirako aukera ederra izaten dute nes-

ka-mutikoeak eta irailera arte itxita egonen da. Ikasturtea behar bezala akitzeko, festaren bat egiteko asmoa dago.

### Sinadura bilketa

Iturengo eskolan ikasteko eskubidea aldarrikatuz, sinadurak biltzen segitzen dute gurasoek.

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 458 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

616 513 497



**GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK**



Kontenedoreak: 5 m<sup>3</sup> - 7m<sup>3</sup> - 12m<sup>3</sup> - 30m<sup>3</sup>

**Mota guztietako hondakinak biltzen dira**

Tel/Fax: 948 45 13 89  
C/ Ameztia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

# SALDIAS

SANJUANAK → EKAINAREN 23TIK 26RA

## Bi egunetan pilota partidak jokatuko dira eta igandean aizkora apustua

Erasun eta Larretxea, Saralegi eta Rekondoren aurka ariko dira

ko da eta bestetik, afizionatuetan lau t'erdian Onsalo eta I. Bengoetxea ariko dira aurrez aurre. **Arratsaldean eta gauetan**, dantzaldia OBANAUKE taldearekin.

### OSTEGUNA 23 Bezpera

**20:00etan** Baztanzopak Herriko Ostatuan. **22:00etan** San Juan suak. **Gauetan** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

### OSTIRALA 24 San Juan Eguna

**10:00etatik aurrera** txistulariek alaituko dute herria. **12:00etan** Meza Nagusia San Juan herriko patroia ohorez. **Ondotik** Udalak eskainitako luntxa Herriko Ostatuan. **18:00etan** pilota partidak: alde batetik, jubenetan Olan eta Artola, Arizmendi eta Apeztegiaren aurka ari-

### LARUNBATA 25

**11:00etan** herriko mus txapelketa. **14:00etan** herri bazkaria Herriko Ostatuan. **Arratsaldean** umeen parkea karts eta gaztelu puzgarriekin. **Arratsaldean eta gauetan** dantzaldia DANTZADI taldearekin.

### IGANDEA 26

**13:00etan** aizkora apustua: Erasun (Aurtitz) eta Larretxea (Bera), Saralegi (Leitza) eta Rekondoren (Leitza) kontra ariko dira. **18:00etan** pilota partidak. Alde batetik, Jaurarena eta Zestau jubenetan lau t'erdian ariko dira eta bestetik, afizionatuetan Bendoiro eta Arraztoa, Juanenea eta



ARGAZKIAK: MARKEL LIZASOAIN

Kirola edo besta egiteko, bietarako aukera izaten da sanjuanetan.

Madariagaren kontra. **Arratsaldean** beste bu-

kaera emateko dantzaldia izanen da MO-

DESTO akordeoilariarekin.

**SALDIASKO UDALAK**  
Besta zoriontsuak opa dizkizue herrietar eta bisitari guztiei

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

**zalaín**  
RESTAURANTE

Zalaín auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalaín.com

**zalaín**

**BEINTZAKO OSTATUA**  
© 948 45 00 14  
orbel@orbel.com  
www.orbel.com  
10701 BEINTZA LABARRIN  
**ORBEL**

**BIDASOA**  
TURKAK - PERTSOLAK  
ESTREAK - AUTOMATIZAZIOAK  
MOHITZERAK - KONPOSIZIOAK  
T.F. 659 971 442  
BERA

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!  
Berria erosi taldea

TTPI-TTAPA, berri jarduera eraketa  
can  
proiektu  
zenbakia  
15.996



ESKANTZA  
BEREZIAK

sofa eta  
liburutegietan



DENDA  
BERRANTOLATU DUGU

3. solairuan  
OUTLET eta LIKIDAZIOAK

**%50**

arteko deskontuak

Muebles   
Telletxea

Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE  
T. 948 450 258 • 948 451 811  
info@mueblestelletxea.com  
[www.mueblestelletxea.com](http://www.mueblestelletxea.com)

## EZKURRA

UDALBATZA BERRIA → KARGU HARTZEA EGIN DA

# Julian Gogorzak segituko du beste lau urtez alkate izaten

Kargu hartze egunean bost botoak beretzat izan dira

### Fernando ETXEBERRIA

Beste legealdi bat hasi du Julian Gogorzak alkate moduan. Maiatzaren 22ko hauteskundeetan bera izan zen bozkatuena eta ekainaren 11n ere bost hautagaien botoak berak eskuratu zituen. Beraz, bera izanen da beste lau urtez alkate.

### Biztanleria

Hauteskundeak tarteko, herrian erroldatutakoak zenbat diren ja-

kin ahal izan dugu. Administrazioak bidalitako zerrendaren arabera, 185 lagun daude Ezkurran erroldatuak (118 gizonzkoak eta 67 emakumezkoak), baina herrian bizi direnak 141 dira, herritik kanpo bizi diren 44 lagun zentsotik kendu behar direla kontuan hartuz. Gutxi batzuk noizean behin etortzen dira herrira eta besteak hemen sortutako edo herriarekin lotura familiarrak dituzten ehiztariak dira eta beraz, Txantxangorri ehiza elkarteko kide izateko eskubidea dute eta uso ehi-zarako ere bai.

Azken hamar urteotan biztanleria 50 lagun baino gehiago jeitsi da.

Bestalde, 64 herritarrek 60 urtetik gora dituzte; 43 lagunek 50 urtetik gora dituzte; 19 dira 40 urtetik gorakoak eta 20 urtetik beherakoak 13 bai-

no ez dira, eta horietatik 5 lagun, 10 urtetik beherakoak.

Hala ere, aipatzekoa da, azken urteotan 12 etxe baino gehiago egin

dituela jende gazteak, baina horietako inork ere ez du seme-alabarik. Etorkizun hurbila soberra atsegina ez dela esan genezake.



### Basurdeak

Orain dela hilabete batzuk, Ciprianoren lehen-go untxi granjan bi basurde zudela aipatu genuen TTIPI-TTAPAN. Argazkian ikus daitekeen bezala, familia haunditu egin da. Hiru basurdekume izan ditu emeak, baina nonbait aurrera ateratzeko gehiegi zirela iruditua zaio bere kideari eta bi desagertarazi egin ditu.

## BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

# Lau neskatil gaztetxok egin dute Lehenengo Jaunartzea aurten

Kristina, Ane, Mirari eta Amaia dira

### TTIPI-TTAPA

Kristina Etxokonaena, Ane Telletxea, Mi-

rari Etxeberria eta Amaia Bertiz izan dira aurtengo protagonistak. Ekainaren 5ean egin zuten Lehenengo Jaunartzea eta giro ederrean ospatu ahal izan zuten eguna lagun eta familia artean.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE/ ARANTXA ITURRALDE  
Aurtengo protagonistak lau neska hauek izan dira.

HEZKUNTZA → ESKOLAREN ETORKIZUNA ZALANTZAN

## Hurrengo ikasturtean eskola itxi egingen du Gobernuak

Berriz irekitzeko aukera badagoela esan diete udalei

### TTIPI-TTAPA

Izarne, Haritz, Amagoia eta Naroak ez dute hurrengo ikasturtea herriko eskolan hasteko aukerarik izanen. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak dagoeneko hartua du 2011/2012 ikasturtean eskola itxeko erabakia eta litekeena da Doneztebera joan behar izatea.

Maiatz hondarrean, Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien, Zubieta eta Iturengo udal ordezkariak Alberto Catalan Hezkuntza kontseilariarekin eta departamentuko zuzendari nagusia den Patxi Espazarekin bildu ziren. Eskola ttikien egoeraz mintzatu ziren eta tartean, Eratsungo eskolaren etorkizunaz. Horren harira, Pedro Deskarga orduan alkate zenak TTIPI-TTAPari esan dionez, «hurrengo ikasturtean eskola itxitzat jotzen dute». Halere, «urte batez itxita egonagatik, gerora berriz irekitzen ahal dela esan digute», gaineratu digu. Hori esanagatik, Deskargak gogoan du inguruko herrietan eskolak itxi izan direnean ez direla berriz ireki. Bide beretik jo du Mikel Gereka Malerrekako eskoletako koordinatzaileak ere: «Nafarroan ez da eskola itxi eta berriz ireki den kasurik ezagutzen».



ARGAZKIA: NAGORE ESKUDERO

### Alkate berria

Ekainaren 11n hartu zuen kargu berria Francisco M. Retegi Deskargak. Pedro Deskargaren lekukoa hartuz, bera izanen da hurrengo lau urteotan alkate. Berekin batera talde osatuko dutenak Raket Telletxea, Patxi Mariezkurrena, Juan Antonio Telletxea eta Luis M. Retegi dira.



badabil

## Lider Gordailu berria

www.ruralvia.com



### Iritsi gailurrik altuenetara zure inbertsioarekin.

**Javier Moreno, 2011ko Asturiasko Itzuliaren irabazlea**

**Inbertsioaren %25arentzat:**  
- %5eko urteko interes nominala 6 hilabeteko epean (%5,06 UTB).

**Inbertsioaren %25arentzat:**  
- %5eko urteko interes nominala 12 hilabeteko epean (%5 UTB).

**Inbertsioaren %50arentzat:**  
- %70 Eurostoxx 50 eta Standar and Poor's-500 indizeen hilabeteko batez besteko errebalorizazioarena, 36 hilabeteko epean<sup>®</sup>.

**Kapitalaren %100 bermatua**  
® Metatuzko gehieneko errebalorizazioa %22 ekoa (%6,56 UTB)

**Eskaerak honek 2011ko uztailaren 20a bitarte balioko du.**

# ARESO

**AZPIEGITURAK** → NAFARROAKO GOBERNUAK EMANA

## 139.656 euroko laguntza jasoko du Udalak azpiegitura lanetarako

311.637 euroko aurrekontua duten lanetara bideratuko da

bertan egin dira, baina eskola atzeko lekua txikia denez, Lesakan egin dituzte klase praktikokoak Foru Poliziak prestatutako zirkuituan.



ARGAZKIA: AITOR ARTOLA

### Jaunartzeak

Unai, Lorea, Aimar eta Uxue izan dira aurten Lehenengo Jaunartzea egin duten neska-mutikoak.

### Juana Mari SAIZAR

Nafarroako Gobernuak 139.656 euroko dirulaguntza emanen dio Udalari, 311.637 euroko inbertsioari aurre egiteko. Herriko kale batean zoladura egingen da eta espaloiak berritu. Horrez gain, argiteria publikoaren, energia elektrikoaren eta telefonia sareen kanalizazioa egingen da.

Bestalde, besteak beste, hornikuntza eta saneamendu sareak berrituko dira.

Gobernuak udal-etxea handitzeko obrak ere finantzatu ditu 59.862 euro emanez. Lanen aurrekontua 85.517 eurokoa da eta horrekin igogailu bat jarriko da, eta artxibategia, bulegoak eta dauden komunak egokitu.

### Ur Algerok aginte makila hartu du

Azken urteotan alkatelaren Mikel Baribarren lekukoa Ur Algerok hartu zuen ekainaren 11n.

### Bide heziketa ikastaroa

Guraso Elkartearen ekimenez, eskolako umeentzat bide heziketa ikastaroa egin da. Klase teorikoak eskolan



ARGAZKIA: LIERNI SAGASTIBELTZA

### Buruhaundiak

Nazabal eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek buruhaundiak egin dituzte plastikako saioretan, eta festetan ibiltzeko prest geratu dira. Horrez gain, irakurketa eta idazketarekiko zaletasuna pizteko proiektu bat ere eraman dute aurrera. ABEZE da proiektuaren izena, eta ikasleek gain gurasoek ere hartu dute parte. Ikastetxeko soinketa gelan egin zen gurasoen aurreko aurkezpena.



ARGAZKIA: IGOÑE GOIKOETXEA

### Zuhaitzaren Eguna

Guraso Elkarteak antolatuta Zuhaitzaren Eguna egin da aurten. Aurreko urteetakoarekin alderatuz, desberdintasun nagusia ez dutela zuhaitzik landatu izan da. Joan den urteetan landatutako zuhaitz azpiak garbitu eta txukuntzeko aprobeztatu zuten eguna guraso eta umeek. Ondotik, merendola eta jolasak egin zituzten.

### EUSKARA

Bai Euskarari Ziurtagiriaren ebaluazioa egiten ari dira Leitza, Areso eta Goizuetan

### TTIPI-TTAPA

Leitza, Areso eta Goizuetan, Bai Euskarari Ziurtagiriaren ebaluazioa egiten ari dira hilabete honetan. Ziurtagiriaren Elkarreko teknikaria den Aranoko Maider Ansa ziurtagiria duten entitate guztiengana joatekoa da ziurtagiriaren ebaluazioa egin eta ziurtagiria berritzea. Leitza, Goizuetan, Areso eta Arano 2004an sartu ziren Bai Euskarari Ziurtagiria ekimenean, euskaren normalizazioan eta erabileran, urrats praktikoa emateko helburuarekin. Eta gaur egun eskualdean 48 eragilek dute ziurtagiria: Areson 4, Goizuetan 14 eta Leitza 40. Horietatik 20k ziurtagiria *Bidea* mailan dute, 17k *zerbitzua euskaraz* maila eta 11k *lana eta zerbitzua euskaraz* maila. Euskal Herrian, berriz, 1.500 inguru dira. Teknikaria ziurtagiridun bakoitzarekin banan-ban elkartuko da. Ebaluazioa Ziurtagiriaren elkartera bidali du eta ondotik, elkartea bera izanen da ziurtagiria berritu daitekeen erabakiko duena, edota ziurtagiriaren maila aldatu behar den esanen duena. Urtebete barer, berriz egingen da ebaluazioa.

# BERTIZARANA

UDALBATZA BERRIA → KARGU HARTZEA EGIN DA

## Antonio Erregerena da Bertizaranako alkate berria

Elkartaldearen babes osoarekin ekin dio alkatetzari

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 11n hartu zuten udaletxeko arduradun berriek kargua. Gogoratu, 203 boto edo botoen %58 eskuratu ta Bilduk irabazi zituela maiatzaren 22ko hauteskundeak eta ondorioz, alkatetza eta hiru zinegotzi izanen ditu. Bertizaranako Elkartaldeak, berriz, 137 boto eskuratu zituen eta beraz, hiru zinegotzi. Hauteskunde hauetako parte-hartzea, bertzalde,

%72,33koa izan da, duela lau urtekoa baino zertxobait altuagoa -2007an %70,02koa izan zen-. 2003ko datuekin konparatuz ere igo egin da; orduan %60,31koa izan zen.

Kargu hartze ekitaldian, sei zinegotzi egon ziren, batek ezin izan zuten joan eta aho batez erabaki zuten alkate Antonio Erregerena izendatzea, eta sei boto lortu zituen.

Zinegotzi lanetan, Bilduko Josune Ibarra, Jose M<sup>a</sup> Etxart eta Aintzane Martirena ariko dira eta Elkartaldetik Andres Etxenike, Blas Andresena eta Mertxe Ibarra izanen dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Bertizarana Eguna giro ederrean

Ekainaren 11n Bertizarana eguna ospatu zen Legasan. Giro ezin hobea izan zen eta eguraldiak ere bildutakoen alde egin zuen. Goizean goiz egin zen gosariarekin eta suziriarekin hasi zen besta eguna. Ondotik BKZ-ren zirkuitua egiteko lagun kuadrilla elkartu zen. Bazkaria 14:30 aldera hasi zen eta ondotik, Manolo Arozena eta Bittor Elizagoienen eskutik bertso saioa izan zen. Gero, Frantzisko akordeoilariak alaitu zuen bazkalondoa. Afaldu ondotik, Trikidantzen eskutik gaupasa izan zen.

**60**  
antibinario  
**Casa Cambra**  
Zure erosketarengatik  
urteurreneko oparia

**edredoi fundak**  
**edredoi nordikoak**  
**ohe estalkiak · albornoak**  
**maindireak · mantelak**  
**kuxinak · toailak**

**Tafalla, 13 · IRUÑEA**  
**948 230 634**

**Erreka, igerileku eta hondartzarako**  
**toallak**

# LEITZA



UDALBATZA BERRIA → KARGU HARTZEA EGIN DA

## Oier Eizmendik hartu du Jabier Zabaloren lekukoa

Bilduko hautagaiak bederatziz boto eskuratu ditu

**TTIPI-TTAPA**

Ekainaren 11z geroztik, Bilduko Oier Eizmendi da alkate berria. Maiatzaren 22ko hauteskundeetan nagusitasunez agertu zen Bildu, eta hortaz, kargu hartze egunean, Eizmendientzat izan ziren Bilduren bederatziz botoak. UPN eta DNEK boto bana lortu zuten.

Honenbestez, hauek dira udalbatza berriko kideak: Bilduko Oier Eizmendi, Aitor Etxarri, Miren Josune Marzol, Miren Andone Salbarredi, Onintza Bengoetxea, Irtati Barandiaran, Arantxa Iparragirre, Esteban Uitzietia Jose Antonio Olaetxea, DNEko Silvestre Zubitur eta UPNko Jose Migel Goikoetxea.

**Atekabeltzen ibilbide berria**

Azken bost urteotan gaztetxea izan den Atekabeltz eraikina berri

ondotik, herrigunea bilakatu da. Eraikinaren ardua esleitzeko, Udalak lehiaketa publikoa egin zuenean, zortzi talde hauek izan ziren elkartu eta Atekabeltz erabiltzeko borondatea erakutsi zutenak: Gazte Asanblada, Kultur Taldea, Txalapartariak, Bilgune Feminista, Ikasle Abertzaleak, Elkartasun Taldea, Bai Euskal Herriari taldea eta pinturazaleak. Talde hauen eskuetan egonen da 20 urtez eraikinaren ardua.

Herri dinamika eta auzolana indartu nahi dute, eta adin guztietako herritarrentzat zabalik izanen dituzte ateak. Ekitaldiak antolatzeko asmoa ere badute, hilaren 3an egindako aurkezpenean azaldu zuten.

**II. labur lehiaketa**

Uztailaren 15ean amaituko da gaztetxeak antolatu duen II. laburlehiaketan lanak aurkezteko epea. Informazio gehaigo [leitzekogaztetxea.blogspot.com](http://leitzekogaztetxea.blogspot.com)-en.

Udako zinemaldia ere abian da eta asteazkeneko filmak eskainiko dira.

ARGAZKIA: NOTICIAS  
Ekainaren 11n hartu zuten kargua udal ordezkariek.



ARGAZKIA: NOTICIAS

**Sagardo Eguna arrakastatsua**

Eguraldi ederra lagun, jendez bete zen plaza ekainaren 11ko III. Sagardo Egunean.

ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTE

**Sarituak**

Nafarroako Gobernuak antolatutako Euskarazko Lehiaketetan hainbat sari herrira etorri dira: deklamazio lehiaketan eskolako 4. mailako Arkakuso taldeak saria lortu du; bideo grabaketan institutuko 4. mailako Plastika Produksions taldeak eta bertsopaperetan Eretako 4. mailako Xabat Illarregik.



**Igerilekua zabalik**

Hilaren 15ean ireki zituen igerilekuak ateak eta irail erdira arte hala egonen da. Ekainaren 22ra arte 15:00etatik 20:00etara egonen da irekia, hilaren 23tik aurrera 11:00etatik 20:00etara eta Santiburtziotan 11:00etatik 18:00etara. Ondoko prezioak herrian erroldatuei dagozkienak dira. Erroldatuak ez daudenentzat sarrerak zertxobait garestiagoak dira.

**2011KO KUOTAK IGERILEKUAN HERRIAN ERROLDATUTAKOENTZAT**

ADINA	BAZKIDEAK	BAZKIDEAK EZ DIRENAK
5-13 urte	18,80 euro	23,50 euro
14-17 urte	29,30 euro	35,30 euro
18-64 urte	55,30 euro	63,50 euro
65 urtetik gora	29,30 euro	35,30 euro
Familiarra (haurrak 13 urtez azpikoak)	117,30 euro	129,30 euro

**2011KO EGUNEKO KUOTAK IGERILEKUAN HERRIAN ERROLDATUTAKOENTZAT**

ADINA	LAN EGUNAK		JAI EGUNAK	
	BAZKIDE	EZ BAZKIDE	BAZKIDE	EZ BAZKIDE
5-13 urte	2,05 euro	2,25 euro	2,70 euro	3,00 euro
14-17 urte	3,50 euro	3,70 euro	4,10 euro	4,45 euro
18-64 urte	4,10 euro	4,40 euro	5,55 euro	5,85 euro
65 urtetik gora	3,50 euro	3,70 euro	4,10 euro	4,45 euro
10 eguneko bonoa	34,00 euro	40,00 euro		

**Nerea Erbiti**

Hilaren 11n jokatu zen Euskal Herriko Haur Kantari txapelketaren finala Hazpamen eta 6-11 urtekoen mailan Nerea Erbiti azpitxapeladun izan zen.

**Sanjuan bezpera**

Sanjuan bezpera festa eguna izanen da. 18:00etan gaztetxoek Ingurutxo dantzatu dute plazan, eta ondotik, opilak banatuko dira.

21:00etan mila lagunentzako mahaia jarriko dira eta kuadrilla bakoitzak eramaten duenarekin afaria egingen da. Giroa alaitzeaz Incansables txaranga arduratuko da.



ARGAZKIA: MIREN TERESE UITZI

Mieljoxe Lekuonaren eskutik jaso zuen Pablo Mirandak herriko makila.

**UDALBATZA BERRIA → KARGU HARTZEA EGIN DA**

## Pablo Miranda izanen da hurrengo lau urteetan alkate

Mieljoxe Lekuonak aginte makila eman dio

niel Oiartzabal, Josu Narbarte, Alaitz Eskudero, Jabier Otaño, Izaskun Bakero eta M<sup>a</sup> Pilar Apezetxea dira.

### Zakurraren txertoa

Zakurraren txertoa ematera albaiaria etorriko da ostiral honetan. 10:00etatik 12:00etara azokan izanen da.

### Zerga

2011ko jarduera ekonomikoen zerga ordaintzeko borondatezko epea ekainaren 18tik uztailaren 22ra izanen da.

### TTIPI-TTAPA

Bilduko Pablo Mirandak hartu du dagoeneko Mieljoxe Lekuonaren lekukoa. Ekainaren 11n ardura hartu zuenetik, bera baita alkate berria. Berekin batera hurrengo lau urteotan udalbatza osatuko duten zinegotziek ere egun berean hartu zuten kargua: Da-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Janire, Ekain eta Aneren jaunartzea

Hiru neska-mutiko hauek egin duten lehen jaunartzea aurten: Janire Urdanpilleta Zabala, Ekain Apezetxea Lujanbio eta Ane Apezetxea Exeberriak.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

### Hurrengo ikasturtera arte agur Goxaliri

Goxali haurren txokoak bukatu du 2010-2011 denboraldia eta behar bezalako amaiera emateko, urtero bezala, azken egunean, maiatzaren 27an, festa antolatu zen. Neska-mutikoentzako jokoak antolatu ziren hasteko eta ondotik, merienda egin zuten denek elkarrekin. Giro ederrean ibili ziren.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

### Herriko musikarien emanaldia

Ikasturte bukaerarekin batera, Aralar Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten duela bi aste Ganbaran.



ARGAZKIA: JOSEBA ELIZEGI

### 124 lagun mendi bizikleta ateraldian

Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako jendea bildu zen Iskibi Kanpinak ekainaren 5ean antolatu zuen mendi bizikleta itzulian parte hartzeko prest: Arantza, Lesaka, Hernani, Lasarte, Zumarraga, Markina, Itziar, Urnieta, Hernani, Lasarte, Pasaia, Oiartzun.... Guztira 124 lagun. Gehienek ibilbide luzea aukeratu zuten eta gustura ibili zen jendea. Antolatzaileak ere pozik gelditu dira erantzunarekin.

# BAZTAN

BESTABERRI BESTAK ALMANDOZEN → EKAINAREN 22TIK 26RA

## Herritarren herri kirol desafioa jokatu da igande arratsaldean

Igandean akituko dira asteazkenean hasitako bestak

### ASTEAZKENA 22

**12:00etan** beste hasiera emateko txupinazoa. **Arratsaldean** eskulana zaharrean. **21:00etan** Baztanzopak. **Ondotik** AGE-RRALDE akordeoilaria rekin dantzaldia.

### ORTZEGUNA 23

**08:00etan** Aurorak kantatu ditu 20 lagunez osatua dagoen Parrokiko taldeak. **12:00etan** Meza Nagusia Parrokiko taldeak eta Elizondoko Abesbatzako kide batzuk kantatu dute. **13:00etan** luntxa frontoian. **17:00etan** pilotapartidak. **20:00etan** tortilla lehiaketa. **21:00etan** pikoteoa.

### ORTZILERIA 24 Haurren Eguna

**10:30ean** ginkana. **12:30ean** antzerkia. **13:00etan** haurrendako paellada. **16:00etan**



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gan den urteko bestetan inauguratu zen frontoi berria. Beheitiko argazkia prozesiokoa da.

haurren jokoak: haurren artean bizikleta lasterketa egingen da. **17:00etan** mus tapelketa. **17:30ean** haurrendako txokolatada. **18:00etan** gaztelu puzgarriak haurrendako. **21:30ean** afaria. **01:00etan** ZOPILOTES taldearekin dantzaldia.

### LAUNBETA 25

**12:00etan** mus txapel-

ketako finalaurdenak eta finala. **14:00etan** zikirojatea. **Ondotik** ANJEL MARI MENDIBERRI akordeoilaria rekin dantzaldia izanen da. **17:30ean** haurrendako puzgarriak izanen dira. **Arratsean** besta frontoian.

### IGENDIA 26

**12:00etan** Meza Nagusia eta horrekin batera

haurren Lehenengo Jaunartzeak. Nerea Sarratea, Aimar Arozena eta Miren Bera neska-mutikoek egingen dute aurtengoan Lehenengo Jaunartzea. **13:00etan** luntxa frontoian. **14:00etan** superquad eta supermotard motoren txapelketak egingen dira. **18:00etan** herritarren arteko herri kirol desafioa jokatu da. **22:00etan** bestak akitzeko GAIXOA NI.



### KULTURA

*Mitxitxi marriau* liburua kaleratu du Begoña Durrutyk

### TTIPI-TTAPA

*Mitxitxi marriau*, katu-ek jain hau, biher edo gaur, kor, kor, kor, kor... Gure inguruan ezaguna den eta haur ttiekien jostatzeko erabiltzen den *mitxitxi marriau* leloaren haritik, izen bereko *Mitxitxi marriau* ipuina kaleratu du Begoña Durrutyk. Aita Donostiak 1950ean desagertua zegoen ipuinaren azarnak bildu zituen Bidasoko herrietan eta beranduago Jose Mari Satrustegi Luzaide inguruan eta gehienbat Sakanan aritu zen lan berean. Bildutakoarekin *Mitoxa herrikantu eta ipuinetan* ikerketa lana idatzizuen. Horixe erabili du, hain zuzen, Durrutyk bere lan berria egiteko. Erein argitaletxearekin kaleratu du eta bere hitzetan, «ipuin klasikoak» da.



**instalazioak**

**IGOGAILUEN INSTALAZIOA  
AROTEGI METALIKOA  
TOLDOAK**

Santiago, 71  
31700 ELIZONDO  
T. 948 580 166  
F. 948 452 557  
M. 619 424 999 - 649 699 820



SANFERMINAK AZPILKUETAN → UZTAILAREN 6TIK 9RA

# Zikiro egunean akituko dira lau eguneko bestak

Asteazken ilunabarrean botako da txupinazoa

kolatada eta zozketak. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia JOXEANJEL akordeoilariak alaituta. **22:00etan** patata tortilla lehiaketa eta afaria.

## ASTEAZKENA 6 Bezpera

## ORTZILERIA 8 Gazte Egune

**19:30ean** txupinazoa beste hasiera emateko. **20:00etan** frontenis txapelketako final nagusia eta sari banaketa. **21:00etan** ezkil-jotzea. **21:30ean** Baztan-zopak. **Ondotik** dantzaldia JOXEANJEL akordeoilariak alaituta.

**09:00etan** gosaria Zuluetan. **11:00etan** plater tiroketa. **14:00etan** gazte bazkaria Zuluetan. **16:00etan** partxis txapelketa eta sari banaketa. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia FRANTZISKOK alaituta. **00:00etatik aitzinera** dantzaldia FRANTZISKOK eskutik.

## ORTZEGUNE 7 San Fermin Egune Haurren Egune

## LAUNBETA 9 Zikiro jatea

**11:00etan** Meza Nagusia Andres Sainduaren elizan. **Ondotik** luntxa herriko elkartean. **16:00etan** mus txapelketa. **16:30ean** Eriz magoaren ikuskizuna. **Ondotik** hurrendako txo-

**08:30ean** su piztea. **10:00etan** gosaria. **14:00etan** zikiro jatea. **Ondotik** bertso saioa Sebastian Lizaso eta Julio Sotorekin. **Arratsaldean** dantzaldia FRANTZISKOK alaituta.



ARGAZKIAK: IZASKUN DANBORIENA

Gazteek beraien eguna ortziralarekin izanen dute eta egun horretan jokatuko da partxis txapelketa ere.

**22:00etan** herri afaria.  
**01:00etan** JALISKO

BAND taldearekin dantzaldia. **Goizaldera** GAL-

XOA NI eta besten bukaera.

**ANTXITONEA**  
Turismo

24 ingela hainuzekin - Apurkalekin  
Aste giroa eta gazteak - Hazi musika eta TI  
Gela berekin ikaldea eta lasa zozketarekin

Braulio Inarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

**FANTXIKE**

% 10eko  
DESKONTUA  
30etik gorako  
gastuan

ttipi txartela

Egin zaitez  
**ttipi-ttapa**ren  
harpidedun

(0034)948 63 54 58

# BAZTAN

UDALBATZA BERRIA → KARGU HARTZEA EGIN DA

## Ezkerraren botoei esker Bilduko Garbiñe Elizegik hartu du aginte makila

UPNko Begoña Sanzberrok ez du kontseilari izaten segituko

### TTIPI-TTAPA

UPN alderdi erregionalistak baino 37 boto gutiago lortu arren, Ezkerrarekin lortutako akordioari tarteko, Bilduko Garbiñe Elizegi lekaroztarra izanen da heldu diren lau urteotan alkate. Maiatzaren 22ko hauteskundeetan, bosna zinegotzi lortu zituzten UPNk eta Bilduk. Baina aipatu bezala, Ezkerrarekin akordioa lortu zuen Bilduk, eta honek lortutako bi zinegotziek Elizegiren alde bozkatu zuten ekainaren 11ko kargu hartze ekitaldian. NaBai 2011ko zinegotziak, bere aldetik, zurian bozkatu zuen «zalantza handiak dituelako Bilduk aurkeztutako gobernu proposamenaren bidegarritasunaz». Halaxe adierazi du alderdiak prentsara igorritako oharrean.

Horrenbertzez, ordezkari hauek osatu dute udalbatza berria: Bilduko Garbiñe Elizegi, Mikel Ortega, Santi Esarte, Maitane Azkarate eta Jon Elizetxe; UPNko Begoña Sanzberro, M<sup>a</sup> Carmen Iribarren, M<sup>a</sup> Isabel Olabe, Leopoldo Jaen eta Jose M<sup>a</sup> Garmendia; Ezkerrako Florentino Goñi eta Iñigo Iturralde eta NaBai 2011ko Pello Iriarte.

### SANZBERRO EZ DA KONTSEILARI IZANEN

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, Begoña Sanzberrok Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko kontseilari izateari utziko dio Baztango Udalean zinegotzi kargua hartzeko. «Biar durak bateraezinak» diela adieraziz hartu du erabakia.

### AKATS ZUZENKETA

TTIPI-TTAPAREN aitzineko aldizkarian, Baztango mahai bakoitzeko hauteskunde emaitzen berri eman zenean, Elizondoko bosgarren mahaiko eta Lekaroz-Gartzaingo emaitzak alderantziz azaldu ziren.

Hauek dira Lekaroz-Gartzainen izan ziren datuak: boto eskubidea zuten 459 lagunetatik 363k eman zuten botoa. Horietatik 4 izan ziren baliogabeak eta 5 zuriak. Bildu izan zen talderik bozkatuena 132 botorekin eta UPN bigarren indarra, 109ekin. Ezkerrak 57 boto jaso zituen, NaBaik 47 eta PSNk 9.

Elizondoko 5. mahaian, berriz, zentsoa 555ekoa zen. Hiru boto baliogabe izan ziren eta 10 zuri. 156 lagunek UPNri eman zioten botoa, 108k Bilduri eta Ezkerrari 53 lagunek, NaBaik 39 boto jaso zituen eta PSNk 19.

Lerro hauen bidez, barkamenak sortu ahal izan diren eragozpenengatik.



ARGAZKIAK: ONDIKOL  
Ekainaren 11n hartu zuen Garbiñe Elizegik alkate kargua. Goiko argazkian udal berria osatuko duten ordezkariak ageri dira. Beheitiko argazkian alkate berria eta Bilduko Santi Esarte aginte makila eskuetan dutela.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ONDIKOL

### Merkatarien 2.000 euroak Koro Ripa Saldias iruritarrentzat

Bertan merkatarien elkarteko Bertan gastatu fite kanpainaren irabazlea Koro Ripa Saldias iruritarra izan da. Ekainaren 9an egin zen zozketa eta Ana Zubikoa izan zen 2.000 inguru txartelen artean saridunarena atera zuena. Ekainaren 18an Ripak 2.000 euro gastatzeko aukera izan zuen elkarteko kide diren dendetan.

KULTURA → 14-18 URTE BITARTEKO GAZTEENDAKO

# Boluntarioria eta elkartasunari buruz bideo lehiaketa antolatu du Bidelagunek

Azaroaren 11n akituko da lanak aurkezteko epea

## TTIPI-TTAPA

Boluntarioria Europar Urtea dela aprobetxatuz, boluntarioria eta elkartasun edo solidaritatearen inguruan bideo lehiaketa antolatu du Bidelagun Elkarteak *Bertzearen Iarri* izenburupean. Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendua dago lehiaketa eta azaroaren 11 arte izanen da lanak aurkezteko epea.

Sari potoloak banatuko dira. Izan ere, lehendabiziko saria 400 eurokoa izanen da, bigarrena 300 eurokoa eta hirugarrena 200 eurokoa.

## ARCELORMITALEKIN ELKARLANA

Lehiaketa Bidelagun Elkarteak antolatu du, baina Lesakako ArcelorMittalen babesaren izan du horretarako. Enpresan Nazioarteko Boluntarioria Eguna ospatu nahi izan zutenean, Bidelagun Elkartera jo omen zuten ArcelorMittalek, elkartearen egiten dutenaren berri jaso zezeko. Geroztik proiektuan interesa agertu dutela adierazi dute Bidelagunetik.

## Etxalarko gasna lehiaketan saritua Jose M<sup>a</sup> Iriarte

Ekainaren 5ean egin zen Etxalarko Gasna Feria Eguna eta horren barne, gazta lehiaketa egin zen. Hamazazpi gazta aurkeztu ziren eta horien artean, hirugarren saria Baztangoa Kooperatibako Jose Maria Iriartek eraman zuen.



## Ba al zenekien...

Ana Elizalde (Elizondo, 1968) Iruñeko udalean lehendabiziko alkateordea izendatu dutela? UPNko Enrique Maia alkatearen «konfidantzako pertsona» omen da. Horrez gain, Tokiko Gobernu Batzordeko idazkaria ere izanen da eta 2007tik Iruñeko udalean duen mugikortasun eta hiritarren segurtasuneko zinegotzi karguarekin segituko du. Bere eskumenetako bat udaltzaingoa da.



ARGAZKIAK: PELLO SAN MILLAN

## Euskal Herri osoko mintzalagunak Elizondon

Euskal Herriko hainbat bazterretatik etorritako 270 mintzalagun inguru bildu ziren ekainaren 4an Elizondon, Mintza Egunaren seigarren edizioa ospatzeko. Giro ederra sortu zen goizean goizetik Elizondoko karraketan, Baztango fanfarremifak lagunduta eta Pello Iriarte historialariaren azalpenak adituz. Bazkalduta, sari banaketa egin zen., Joseba eta Fernando gidari zirela. Aurtengoan Adeline, Ainhoa, Urko, Jon Mikel, Josean eta Txomin mintzalagunen ekarpena gorai patu zen, bakoitzari zilarrezko pina eta Baztango Bertso eskolako lagunen bertso sorta oparitut. Dantza gogoia asetzeko aukera ere izan zuten bildutakoek.



ARGAZKIA: MAITE ARIZTEGI

## Elizondoko Lanbide Eskolako gazteak saritua

Elizondoko Lanbide Eskolako sei gazte CEIN erakundearen kudeaketa hoberenari dagokion lehendabiziko saria eskuratu dute. Enpresa munduan esperientziak izatera bideratua dago jardura hau eta gazte hauek Seigazte Kooperatiba sortu zuten ikasturte hasieran estatuko bertze eskolen artean produktuen salerosketan aritzeko. Aldi honetan, Valentziako ikastetxe batekin egon dira harremanetan. Maialen Oteiza, Mikel Chivite, Iratxe Mendikoa, Ekhiñe Almandoz, M<sup>a</sup> Joxe Balmelli eta Gabriela Martinez dira saritua eta beraiekin batera proiektuan parte hartu duten irakasleak Izaskun Telletxea eta Delia Portillo.

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatua



Santiago, 59 2C - ELIZONDO  
T. 948 581 468 M. 630 354 818

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

# BAZTAN

UDALA → EUSKARAREN ORDENANTZA

## Idazkari lanposturako oposaketa gelditu egin du Udalak

Lehiaketa berriaren deialdian nahitaezkoa izanen da euskararen ezagutza

karrik kontaktzen zituela. Udalak gogorazi nahi du martxoaren 4an NaBairren udal gobernua Euskararen Ordenantzat onartu zituela, «Baztango Udalak kontratzen zuten langileek euren lan jarduera euskaraz eta gaztelaniaz egiteko gaitasuna izan beharko zutela zehaztuz».

Ekainaren 20an egiteko zen ezohiko plenoan idazkari lanerako euskara menperatzea betekizun bihurtu dute. Plantillaren aldaketari behin-behineko onespina eman ondotik oposizio-lehiaketa berria abiatuko dute, euskararen betekizuna betetzen duena. Tarte honetan, legeak ezartzen duen bezala, bertze herri bateko idazkari bat gaituko dute Baztango Udalean egin behar diren osoko bilkuretan «atzeratu ezin diren aferak aitzinerat ateratzeko».

### TIPI-TTAPA

Ekainaren 9an hasi zen idazkari posturako oposaketa proba geldiarazi du udalak. Udal berriak jakinarazi duenez, aitzineko legealdia akitzeaz zela, idazkari lanpostua bitarteko gisa eta administrazio kontratuekin betetzeko oposizio-lehiaketa abiatu zen urteazko lehentasuna emanez. Prozesua plantilla organikoan euskararen betekizuna aldatu gabe abiatu zuen, hau da, euskara jakitea derigorrezkoa izan gabe eta meritua bakarrik izanik, 100 puntutik 2 ba-



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

### Sokorro Dufurrenari omenaldia egin dio Baztan Ikastolak

Ekainaren 12an ospatu zuten Baztan Ikastolakoek urteroko besta Elizondon. Aurtengoa, gainera, berezia izan zen, hainbat urtetan irakasle izandako Sokorro Dufurrenari omenaldia egin baitzizaion. 1971n sartu zen Baztan Ikastolan Dufurrena eta aurten hartu du erretiroa. Urteetan egindako lana izan zen omenaldia jasotzeko arrazoia. Horrez gain, hainbat ekitaldi izan ziren Ikastolako bestan: dantzariak, bazkaria, puzgarriak, dantzaldia... Aipatu, bertzalde, Baztan Ikastolak Pilarko frontoia errentan hartu duela eta heldu den ikasturtetik aitzinera, neska-mutikoen jolastokia hortxe izanen da.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Berroeta Patagonia bihurtu da bestetan

Ekainaren 10ean hasi ziren Berroetako Mendekoste bestak eta larunbat arratsaldean, hitzordu berezia izan zuten *El Conquistador del fin del mundo* telebista saio arrakastatsuko parte hartzaileekin. Azken edizioako lehiakideak ez ezik, iazko batzuk ere izan ziren. Bi taldetan banatu ziren. Talde lanjako kideak Xegone, Mikel, Inma, Metxa, Dina, Cindy, Jandur eta Pasang izan ziren. Talde berdeko kideak, aldiz, Nakor, Hanibal, Maialen, Maider, Helenka, Lur eta Leyre. Aurkezle lanak Julian lantzi lesakarrak egin zituen. Zaldi bat karga eramateko prestatu, egur batzuk zelaiaren alde batetik bertzerera eraman, moztu, karroa kargatu eta traktorera lotu behar zituzten traktorea piztu gabe. Ondotik, soka lehiakide batek soka batetik goitu behar zuen ikurrina hartzeko. Talde berdeak lortu zuen garaipena. Hortik harago, ordea, nabarmentzekoa da 1.000 lagun inguru elkartu zirela Berroetan.



EUSKARA → ZIURTAGIAREN ELKARTEAREN ESKUTIK

## 51 entitatek Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu dute

Bi dira  
ziurtagiria lortu  
duten entitate  
berriak

### TTIPI-TTAPA

Guztira 51 entitatek eskuratu zuten Bai Euskarari Ziurtagiria Baztanen, ekainaren 3an Elizondan egin zen ekitaldian. Horietatik seik *Zerbitzua eta Lana Euskaraz* maila lortu dute; 25ek *Zer-*

*bitzua Euskaraz* maila; eta 19k *Bidean* maila. Aurtent bi entitate berri eskuratu dute Ziurtagiria: Etxenikea landaetxeak eta Ilargi ostatuak. Eta bertze bi mailaz igo dira: Astiz anaiak zurgindegia *Zerbitzua eta Lana Euskaraz* maila izatera pasatu da eta Lur dantzalekua *Zerbitzua Euskaraz* mailara.

### ZIURTAGIRIDUNAK

Albaitaritza, Altxuko denda, Antxitonea trinke-



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Aurtent Bai Euskarari Ziurtagiria jaso duten baztandarretako batzuk.

tea, Anzabalagentzia, Ariruri, Arkupe gozotegia, Aroz Berri, Arrupea botika, Arteka, Astiz anaiak zurgindegia, Axular estankoa, Azkarate ikuztegia, Azken Muga, Ikastolako Guraso Elkarte, Baztandarra Kooperatiba, Baztandarren Biltzerra Elkarte, Baztangoiza tailerrak, Berro Bide, Bertizgo Partzuergoa, Beti-

zu Albaitaritza, Vodafone Baztan, Esarte harategia, Dolaetxea Taska, Gazte-  
txea, Etxenikea landa-  
etxea, Eskisaroi jatetxea, Fantxike denda, Goroskar Aseguruak, Ilargi ost-  
tua, Ipingi denda, J.M. Munarriz hortz klinika, Jauregia Esnekiak, Jauregia landaetxea, Jo ala Jo kultur elkarte, Kattaligorri denda, Koro Arru-

tia botika, Lindutx promozioak eta Hargibel erai-  
kuntzak, Lur dantzalekua, Mañonea agentzia, EHNE, Panificadora Baztanesa, Pottoki, Ruiz de Larrinaga zurgindegia, Malmö, Ti-Tau Erreformak, Txaruta Pilota Elkarte, Txokoa ileapaindegia, Uxoa okindegia, Xaloe telebista, Xorroxin irratia eta Zubi-Punta taberna.

## MENDIKO eta MALDETAKO Belar lanetarako makina erakusketa

**NON: ELBETE**  
Lekueder baserria

**NOIZ: 2011/07/02**  
Larunbata  
10:30ean

**MENDIKO ETA MALDETAKO BELAR LANEKIN ZERIKUSIA DUTEN MAKINA BERRI ETA EGOKITUENAK LANEAN IKUSI AHAL IZANGO DIRA ERAKUSKETA HONETAN**

- Belar mozketa eskuzko nahiz traktoreentzako aurreko segadorak erabiliz
- Belarra hedatu eta mailatu
- Belar bilketa, bola makinak eta autokargatzailea erabiliz
- Ongarri eta purin banaketa

**ERAKUSKETA AMAIERAN ESKUKO DESBROZADORA BAT ZOZKETATUKO DA!**

ifg SANADERO upna EUSKAL GOB. ERREGIOA Gobierno de Navarra

# BAZTAN

MENDIA → ESPEDIZIOA NEPALERA

## 5.000 metrotik goitiko hiru tontor igo dituzte bi baztandarrek Himalayan

Iñaki Iriarte amaiurtarra eta Andoni Etxeberria erratzuarra dira mendizaleak

### TTIPI-TTAPA

Mendia maite dutelako erabaki zuten Iñaki Iriarte amaiurtarrak eta Andoni Etxeberria erratzuarrak Himalaya aldera joatea. Iruñeko agentzia batera jo zuten horretarako eta bortz laguneko taldea osatu zuten: iruñear eta gas-teizar banarekin eta madrildar batekin. Duela gutti telebistan ere ikusiak ditugu biak, Edurne Pasabanen espedizio bateko erreportaje batean, alegia.

Prestaketa moduan, lehenagotik mendian

«pixka bat» ibili eta apirilaren 8an abiatu ziren Nepalera. Hala kontatu digu Iriartek. Kantmandu hiriburura ailegatu eta handik Luklara joan ziren hegazkinez. Luklatik abiatu zuten oinezko ibilbidea. Bailara bate-tik igo eta bertze bate-tik jeitsi ziren eta tarte horretan 5.000 metro-tik goiti dituzten hiru gailurretara ailegatu ziren: Gokyo Ri (5.357 metro), Chola pass (5.420 metro) eta Kala Pattar (5.545 metro). Azken honetatik, Everest (8.872 metro) eta Lhotse (8.501 metro) bezalako tontor-rak ikusteko aukera izan zuten. Behin ibilbidea akituta, handik Luklara itzuli ziren.

20 egun pasatu zituzten Nepal aldean eta erran digutenez, kontent ibili ziren amaiurtarra eta erratzuarra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendizaleak Gokyo Ri gainean (5.357 metro). Ezkerretik eskuinera, Miguel Iruñekoa, Andoni Erratzukoa, Angel Gazteizkoa eta Iñaki Amaiurkoa. Ezkerretara ageri den tontorra Cho oyu da (8.201 metro).



ARGAZKIA: BAZTAN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA

### Baztan Ikastolakoak bizikleta besta egin dute

Eguraldi ederrarekin, bizikleta besta egin zuten ekainaren 1ean Baztan Ikastolako guraso eta ikasleek. Elizondoko karrketan eta Baztango bertze bideetan ibili ziren, ederki gozatuz.

<p>HARATEGIA - CARNICERIA</p> <p>ETXKO ARATZAK</p> <p><b>ZAMAIL</b></p> <p>GANADERIA PROPIA</p>				<p><b>ASTELEHENETIK ORTZEGUNERA</b></p> <p>09:30etik 17:00etara</p> <p><b>ORTZIRALA</b></p> <p>09:30etik 14:00etara</p> <p>17:00etatik 20:00etara</p> <p><b>LARUNBATA</b></p> <p>09:00etatik 14:00etara</p>	
• ARATXE AZIMZUNA	27 €/K	• ARATXE-ZANGAR	7 €/K		
• ARATXE TXULETA	13 €/K	• ARATXE GISATUA	6 €/K		
• ARATXE BIRIBILKIA	10 €/K	• ARATXE TXURRASKOA	6 €/K		
• ARATXE XERRAK	10 €/K	• ARATXEAREN HARAGI TXIKITUA	6 €/K		
<p>Santiago, 56B - behea • 31700 ELIZONDO • T. 948 452 486</p>					

**SOULE**

hileta artea

Tel. 948 452 486

Moz. 929 659 583

BAZTAN

MENDIALDE

30 urte

Jatetxea

T. 948 453 060 - AMAJUR

www.mendialdea.com

ONDAREA → 1723AN FRANTZIAKO TROPAK MONASTERIOAN SARTU ZIRENEKOA

# Frantziako armadak monasterioa erre zueneko kaliza berreskuratu da

Agirre Iturria familiak monasteriora itzuli du

## TTIPI-TTAPA

Zaila da monasterioaren jatorri zehatza zein den zehaztea, baina diotenez, IX. mendean agustindar batzuk ospitale bat eraiki zuten erromesendako. Historia luzea du gibeletik eta tartean bi sute garrantzitsu ere jasan ditu. 1526an Nafarroak independentzia galduzuenean, eta 1723an, frantsesek inbaditu zutenean. Ordukoa da, hain zuzen, gaur egun Saran bizi den Agirre Iturria familiak monasteriora itzuli dion objektua.

Frantsesak monasterioan sartu zirenean, ba-

ruko zenbait objektu herriko etxeetan gorde omen ziren. Eta urteetan zaindu ondotik, eskuzabaltasunez itzuli du orain Sarako familiak bere to-kira eta herriak eskerrak eman nahi izan ditu.

## Santiago Villaresek segituko du alkate

Ekainaren 11n hartu zuen Santiago Villaresek aginte makila eta honenbertzez, bera izanen da bertze lau urtez alkate.

## Etxalarko Gasna Ferian saritua

Ekainaren 5ean egin zen Etxalarko Gasna FERIA eta horren barne, gazta lehiaketa. 17 gaztaren artean, bigarren saria Etxelekua gasnategiko Ana Mari Bengoetxeak lortu zuen.



ARGAZKIA: ONDIKOL

## Kaperako besta ospatu zen Arantzazuko Amaren basilizian

Jende aunitz, batez ere Ainhua aldekoa, Lapurdin besta eguna dela aprobetxatuz, hurbildu zen Arantzazuko Amaren basilizara, Kaperaren besta ospatzera ekainaren 13an, Mendekoste bazkoaren bigarrenen. Garai batean oraindik handiagoa izaten zen ospakizuna eta mugaz bi aldeko jendakiak elkartzeko eta kontrabandoan paketeren bat pasatzeko ere aprobetxatzen omen zen.



Hauxe da urteetan Agirre Iturria familiak gorde duen objektua.



ARGAZKIA: NOEL EYHERAGARAY

## Herritarrak kontrabandisten lasterketan

Bestetako kontrabandisten aurtengo lasterketatik bi ezaugarri dira nabarmentzekoak: ohi baino ibilbide luzeagoa eta gogorragoia izan dela batetik, eta izen haundiko lasterkariak hurbildu direla bertetik. 54 lagunek egin zuten ibilbidea eta horien artean, herritarrak edo herrian bizi direnak hiru izan ziren: Ander Agesta arantzarra baina Urdazubin bizi dena izan zen herriko lehena, sailkapen nagusian 18. izan zen; Clemente Suhas herriko bigarrena helmugaratu zen, sailkapen nagusian 43. eta Igor Otegi izan zen Urdazubiko hirugarrena, sailkapen nagusian 46. postuan gelditu zena.

**ARMUA JATETxea**  
  
T. 940 593 131  
Zugamarturik errep. 3. km  
URDAZUBI

**HERRIKO ETXERIKO EDONTEGIAZ CAFÉ DE LA MAIRIE**  
  
T: 0559542519  
Mazeten eta Véronique  
**SARA**

# ZUGARRAMURDI

INGURUMENA → GARBIKETA LANAK EGIN DITUZTE

## Mugarik Gabeko Lurpeak bat egin du Ingurumen Nazioarteko Egunarekin

30 neska-  
mutiko leze  
inguruak  
garbitu, tailer  
batean parte  
hartu eta  
berendu berezia  
izan zuten

### Margari eta Koro

Eskoletako haurrak Ingurumenaren eguna ospatzeko lan eta lan aritu ziren gan den ekainaren 10ean. Hogeita hamar bat nexka-muttiko elkartu ziren eta leze inguruak garbitzen aritu ziren. Ondotik tailer batean parte hartu zuten, janariak gure osasunean duen eragina ezagutzeko, eta finitze-ko berendu berezi bat eskeini zitzaizkien: frutekin egindako brotxetak eta bixkotxak.

### Bi ezkontza aste hondar berean

Seguraski gure herrian sekulan gertatu ez dena gertatu da gan den aste hondarrean: bi ezkontza egin zirela. Gainera bakoitza bere berezitasunekin.

Bata ortziralarekin egin zen, eta uste gabekoa izan zen, niorek ez baitzekien Juan Luis eta Maria ezkontzeko zirela. Ale ba, zorionak bikote!

Bertzea larunbatean egin zen, Alkerdiko kaperan. Gizongaia vespa batetan gan zen Elizagonetik kaperarat, eta behin ezkontuta, senar-emazte berriak vespaz ere itzuli ziren herrirat (italiar pelikula bat balitz bezalaxe). Ondotik bazkaria zikiro bat izan zuten, Errotaxarreko bordako lezeetan. Hauei ere, zorionak!



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Ezkundu ondotik Vespan, Italiako pelikuletan bezala.

### Akitaniako enpresen bilkura

Zugarramurdi izan zen Akitaniako Herri Lanetako Sindikatuak eta Federazioak ekainaren 9an beren urteko bilkura egiteko hautaturiko toki. Honela, 115 enpresa pribatuetakordez kariak hurbildu ziren Sorginen Museora urteroko Asanblada Orokorra egiteko. Honetaz gain, lezea ere bisitatu zuten bi sorginen eskutik, eta topaketa herrian akitu zuten, zikirojateaz gozatuz. Aunitzentzat Zugarramurdi «zakurren ipurdin» dagoen herri bat da, toki guztietatik urrun dagoe-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Ezkundu ondotik Vespan, Italiako pelikuletan bezala.

na. Bainan ditugun bisitarien kopurua ikusiz, bixtan da urruntasun hori ez dela arazoa.

**MONTXO** OSTATIVA

Dantxarinetik 2 km-tara

**TABAKO-DENDA**  
**ANZAN-BORDA • VRDZVBI**  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**ANZABAL INMOBILIARIA**

- Zurich Asegururak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aurrularitza
- Norrena eta Aseguru Sozialak
- Ahoikularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baseri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairuak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



KULTURA → EUSKAL DANTZA TALDEAREN ESKUTIK EKITALDIAK

## Haurren dantza bestarekin udako animazioak hasi ditu Zirikolatzek

Astearte gau guziz ikusgarriak eskainiko ditu

**Franck DOLOSOR**

Haurren dantza ikusgarriarekin urte osoko ikastaldiak bururatu zituzten euskal dantzariak maiatzaren 27an. Orain udako animazioak prestatuko dituzte Zirikolatzeko kideek ikusgarriak eskainiz errebote nagusian astearte gau guziz. Urte osoan ikasi dituztenak erakutsiko dituzte hor, eta gainerat bertze taldeei ongi-etorria egingen die: Hiriburuko Leinua uztailaren 26an, Uztaritzeko Izartxo agorriaren 9an eta Gabadioko dantzariak abuztuaren 23an.

Bertzalde, Ezpeletan ospatuko den Gauargi nazioarteko haur dantzarien festibalaren kariatarat, ikusgarri bat Senperen eskainia izanen da uztailaren 19an. Kari hortarat, mundu osoko gaztetxo horiek aterpetzeko familiak miazten dituzte oraino gure herrian. Azkenik, berriki sortu den helduen euskal dantzarien taldeak ez du ikusgarri eskainiko uda huntan aitzineko aleetan aipatu bezala. Oinetakoak berriz jantzi dituzten dantzari ohiak ez dira oraino prest jende aitzinean agertzeko baina ez dute amore eman nahi eta udazkenean karraskan eta burubelarri ariko dira lanean sorpresa bat prestatzeko.



Zirikolatx taldeko dantzari tikiak.

ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Senperetik Azkainerat ibiltzen direnak zaintzeko radar berria

Radar berria ezarria izan da berriki ibilgailuen abiada neurtzeko eta gehiegikeriak zigortzeko Ibarungo Lizardia lan zelaia eta Donibane Lohizunerako bide zaharra artean. Azken urteetan Frantziako gobernamentuak indar handiak egin nahi izan ditu hilen kopurua murrizteko bideetan. Gisa huntan abiada mugatzea eta hurbiletik zaintzea deliberatu zuten agintariak. 2011garren urtea hasi zenetik 21 lagun zendu dira jadanik Pirinio Atlantikoetako departamendueta-ko bideetan. Hautetsiek ez dute 30 biktimen muga pasa nahi eta horregatik radar berriak ezarri dituzte eskuin eta ezker, herri frangotan, bertzeak bertze, gurean. Orain 90eko muga ez da gainditu beharko Ibarun aldean. Galde ainitz sortu du radar berriak: isunak zombatekoak izanen dira? Beti piztua izanen ote da? Bi aldeetarat doazen autoak zainduko ote ditu?

### FLASH

#### 21 neska-mutikoren jaunartzea

21 senperetar gaztek lehen jaunartzea ospatu zuten salbatorez, besta eguna zelarik Ipar Euskal Herrian. 10 urteko haur horiek moldatu zuten osoki elizkizuna euskaraz eta erdaraz. Orain bigarren komunionea eta sendotza prestatuko dute katixima egileekin eta Frantxoa Garat erreto-arearen laguntzarekin.

#### Jamattit Bastres joan zaigu

Duela egun batzuk, bere azken egoitzarat segitua izan da Jamattit Bastres laborari zena. Helbarrundarra 83 urteetan pausatu da eritasun luze baten ondotik. Bastres ezaguna zen Senperen eta hemendik kanpo ere laborantzan azkarki aritu baitzen bere bizian Fermin anaiarekin urde hazkuntza haundia sortu baitzuen. Dolu-minak familiari.

#### Arrantza kontuak

Senperen bizi den Angel Irazusta arrantza ederra egiten ari da egun hauetan. 13 kiloko karpa bildu zuen maiatzaren 18an, eta lau egun geroago, 21 kiloko karpa harrapatu zuen, pentsa! Arrantzaleak dio oren bat behar izan zuela arrain ederra uretik ateratzeko. Zubi erromatarren ondoan gertatu omen zen dena, bainan nun xuxen ez da jakinen...

**ttipi-ttapa**  
www.ttipi.net

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu,  
deitu telefono honetara:

(0034) 948 63 54 58



# SARA

KIROLA ETA OSPAKIZUNAK → SARAKO URTXINTXAK

## Giro ederrean iragan da eskubaloiairen besta

Musean 11 bikotek parte hartu dute eta pokerrean 14 lagunek

### TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, ekainaren 4an egin zen Sarako Urtxintxak eskubaloitaldearen sasoinbukaerako besta. Hasteko eskubaloitxapelketa jokatu zen, eta mutil eta neska elkarren kontra aritu ziren.

Ondotik mus eta poker lehiak etorri ziren. Musean, 11 bikoterentean, Pantxo Saint Martin eta Panpi Perugorria izan ziren xapel-

dun. Bigarren postuan Xan eta Alain gelditu ziren eta hirugarren Intza eta Patxi. Pokerrean, bertaldez, 14 lagun aritu ziren eta Christophe Petit nagusitu zen, bigarren Xabi Irastorza eta hirugarren Jean François Iribarren.

Gauean afari goxobat eskaini zen.

### SEI KATEGORIA

Urteak daramatza lanean emakumezkoen eskubaloitaldeak eta gaur egun, sei mailatan ari da: seniorretan, 18 urteazpikoetan, 15 urteazpikoetan, 13 urtetik beheikoetan, 11 urtetik beheikoetan eta eskubaloitxolan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskubaloitxelan egin zen xapelketako sari banaketa.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Beti Gaztekoen bazkaria giro onean

Beti Gazte elkarteak 90 lagun elkartu ziren duela aste batzuk Urdazubiko Armua jatetxean egindako bazkarian. Giro ederrean bazkaldu zuten.



GRUPO TANATORIO TALDEA

# IRACHE

MALDAERREKA S.L.

LEKUNBERRI  
BERA | SAN JOSE  
ELIZONDO | BAZTAN

LEITZA | 948 61 09 64 (SALAKO TELEFONOA)

LESAKA | 948 62 75 77 (SALAKO TELEFONOA)

BETELU | 948 51 34 67 (SALAKO TELEFONOA)

DONEZTEBE | SAN PEDRO | 948 45 19 14 (SALAKO TELEFONOA)

ELIZONDO | BAZTANDARRA | 948 58 02 50 (SALAKO TELEFONOA)

**24 ORDUKO TELEFONOA**

**948581959 | 948637404**

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

## EZKONTZAK

**Xabier Berrueta Arburua** eta **Arantxa Perugorria Urkia**, Etxalarakoak, maiatzaren 28an Etxalarren.

**Xanti Iturbide Matxikote** eta **Enara Cubero Galarregi**, Igantzikoa eta Gaztelukoa, ekainaren 4an.

**Xabier Iturria Rozas** eta **Izaskun Zuberbiola Garbizu**, Berakoa eta Oiarzungoa, ekainaren 18an Beran.

**Maria Ibarra Barberena** eta **Juan Luis Erro Mendiburu**, Urdazubikoa eta Zugarramurdikoa, ekainaren 10ean Urdazubin.

**Ton Elizalde Trisan** eta **Bea Fernandez Cob**, Bartzelonakoak, ekainaren 11n Zugarramurdin.

**Jose Mari Iribarren Saldias** eta **Alicia del Castillo Fiuza**, Doneztebekoak, maiatzaren 14an Donezteben.

**Jose Joakin Ilarregi Belarra** eta **Nuria Mutuberría Mindegia**, maiatzaren 28an Donezteben.

**Ander Bereau Zapirain** eta **Alaitz Arribillaga Indaburu**, Lesakakoa eta Berakoa, ekainaren 11n Lesakan.

**Sylbain Olagarai** eta **Maritxu Tapia**, Sarakoak, ekainaren 11n Saran.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Elene Lizasoain Apeztegia**, Oronozkoa, maiatzaren 13an.

**Amets Gereño Gartzia**, Leitzakoa, maiatzaren 29an.

**Unai Gereño Gartzia**, Leitzakoa maiatzaren 29an.

**Amaia Elorz Ripa**, Elizondokoa, maiatzaren 21ean.

**Haizea Zelaieta Gorrotxategi**, Etxalarakoa, ekainaren 1ean.

**Janire Sarobe Sansiñena**, Elizondokoa, apirilaren 28an.

**Xumani Jorajuria Mindegia**, Donamariakoa, ekainaren 4an.

**Unai Oteiza Elizondo**, Oizkoa, maiatzaren 26an.

**Aizea Jauregi Flores**, Doneztebekoa, ekainaren 10ean.

**Alize Sagardui Lekuona**, Goizuetakoa, maiatzaren 27an.

**Intza Barrenetxe Astigarraga**, Sarakoa, maiatzaren 9an.

**Jakes Amorena Estanga**, Sarakoa, maiatzaren 24an.

**Xalbat Otano Beoudin**, Sarakoa, maiatzaren 25ean.

**Aimar Agesta Hernandorena**, Sunbillaakoa, ekainaren 8an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Fermina Salaberria Salaberria**, Goizuetakoa, ekainaren 1ean, 86 urte.

**Venceslas Fontenil**, Sarakoa, maiatzaren 18an, 42 urte.

**Miguel Tomas Gartziaarena Juantorena**, Elgorriagakoa, ekainaren 4ean, 82 urte.

**Juana Gamio Bikondoa**, Erratzukoa, ekainaren 8an, 81 urte.

**Emeterio Vicente Apeztexea**, Arizkungoa, ekainaren 9an, 80 urte.

**Oskar Barrenetxe Jaimerena**, Amaiurkoka, ekainaren 14an, 25 urte.



### Amparo ETXARRI OIZ I. URTEURRENA

Berakoa, 2010eko uztailaren 2an

*Seguru urte aunitz pasatuko direla eta hau lehenbizikoa bertzerik ez dela. Baina urteak kontatu ahal izateak berak zurekin ahazten ez garela adierazten du.*

#### ZURE FAMILIA

Bere urteurreneko meza uztailaren 3an eginen da, Berako Elizan, 12:00etan.



### Fermin ALTUGARAI IGANTZI I. URTEURRENA

Lesakan, 2010eko ekainaren 10ean

*Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.*

#### ZURE FAMILIA

Eskerrak eman nahi dizkiegu momentu latz hauetan gurekin egon zareten guzietan.

### Oskar BARRENETXE 2011/06/14



*Eskerrak elkar izautu gunun zorioneko gabari, geroztik zenbat solas ta kanta besta, dantza ta afari. Amaiurko elkarte goxoan une ederrak ugari, beti zure bihotza eskainiz Arantzako saltxerari. Gure artean lagun maitagarri orain izar iheslari. Zure bizipoz eta indarna gure bihotzen emari, gaur malko beltz bat erori arren eki begi urdinari, zure irriaz ikusiko da gure zerua oxkarbi.*

#### ZURE ARANTZAKO LAGUNAK

Saralegitarrak zerbaitegatik badira ezagunak, hori herri kirol munduarekin duten loturagatik da. Harri jasotzean ez bada, aizkoran egin dira ospetsu. Eta saralegitarren ondorengoe-

tako bat da Eneko Saralegi (Leitza-Iruñea, 1993), Nartxi aizkolari haundia zenaren semea. Dagoeneko txapel bat baino gehiago baditu irabaziak, eta horien artean daude iaz

Urrezko Aizkoran lortutakoa eta Euskal Herriko Aizkolari Gazteen mailakoa. Berriki Eusko Label Banakako Aizkolarien Txapelketan gutxigatik gelditu da azpitxapeldun.

Eneko SARALEGI | Leitza aizkolaria

# «Seguruenik odolean eramane- dut aizkoran aritzeko sena»

G. PIKABEA | LEITZA

Zer ikusi hura ikasi. Eneko Saralegik ez du besterik egin, etxean hasitako bideari segitu. Aita zena, osabak, izeba, anaia... Etxean denak ikusi ditu aizkoran eta familia saralegitarra izanda, ez da harrizkoa ondorengoek ere herri kirol letarako afizioa izatea. 18 urterekin, Eneko Saralegik aizkora aukeratu du. Kirol gogorra dela badaki, baina «seguruenik odolean eramane dut aizkoran aritzeko sena», esan digu. Iruñean pasatzen du astea baina aita zena leitzaarra izateaz aparte, harreman sendoa du herriarekin. «Erdia behintzat leitzaarra sentitzen naiz», dio.

Oraindik umea zela eman zituen lehenengo aizkora kolpeak Saralegik: «hiru urterekin aizkora tiki bat hartu eta edozein egurretan kolpeak ematen hasi nintzen». Plazako lehenengo erakustaldia, berriz, sei urterekin egin zuen. Geroztik hainbat plaza-tara ailegatu da eta txapelketa batzuk jokatu eta irabaziak ere baditu: Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa eta Urrezko Aizkorakoa, adibidez, azken hau iaz. Eta berriki 19 urtez azpiko mailan banakako txapela lortzeko puntuan izan da. Hilaren 12an jokatu zen Azpeitian finala, eta



ARGAZKIA: GERARDO BENGOA

Eneko Saralegi azpitxapeldun gelditu zen ekainaren 12an Azpeitian.

Eneko Otaño beizamarren kontra aritu zen. Hasierako bi probak irabaziz ekin zion finalari, baina azkenekoetan Otaño nagusitu zen. «Oso parekatuak ibili ginen biak —dio— eta momenturen batean txapela gertu ere ikusi nuen, baina azkenean, Otañok irabazi zuen». Gipuzkoarrak baino 22 segundo gehiago behar izan zituen lanak bukatzeko. Dena den, «ongi» ikusi zuen bere burua finalean: «selektibitatea aste horretan izan nuen eta horrek ere ez zidan onena ematen utzi. Baina nik uste nahiko ongi moldatu nintzela».

**HASIERAKO KOLPEAK**  
«Hiru urterekin aizkora tiki bat hartu eta edozein egurretan kolpeak ematen hasi nintzen. Plazako lehenengo erakustaldia sei urterekin egin nuen»

**ENTRENAMENDUAK**  
«Astean gutxienez bi aldiz Leitza josten gara osabarekin entrenatzera. Entrenamenduetan sufritzeko esaten didate, bestela gero ez daukadala deus egitekorik»

Aizkorarako ez ezik, ikasteko ere balio du. Bigarren batxilergoa egin du aurten, eta ekaineko bigarren astean selektibitatea. Gainditu du dena eta unibertsitatera joateko asmotan da, Donostiara diseinu mekanikoan ingeniari egitera. Ikasketak eta entrenamenduak bateratzea «ez dela erraza» adierazi digu. «Astean gutxienez bi aldiz Leitza josten gara osabarekin entrenatzera eta denbora hartu behar da bietarako». Entrenamenduen harira, zera kontatu digu: «entrenamenduetan sufritzeko esaten didate,

bestela gero ez daukadala deus egitekorik».

Ikasi eta entrenatu bai, baina aukera dagoenean festa ere bai. «Juerga egitea gustatzen zait, baina txapelketak direnean alde batera utzi behar izaten da. Deus ez dagoenean pixka bat egitea ez da gaizki etortzen», aitortu digu.

Etorkizunera begira, aizkoran segitzeko gogoz somatu dugu eta kontrarioei aurre egiteko lanean segitzeko intentzioarekin. Buruz buruko azken finalean aurkari izan zuen Otañorekin batera, Eloy Kortxero omen da bere «kontrariorik gogorrena».

Bere ezaugarriez galdetuta, berriz, «agian indarra da falta zaidana», erantzun digu: «teknikaz nahiko ongi nabilela usate dut, baina kolpea falta zait». Indarra «falta» izate horren ondorioz, bere irudiko, lan luzeetan hobeki moldatzen da. Eta urduritasuna du kontrolatu beharreko beste ezaugarria: «erakustaldietara joatean ez naiz urduri jartzen, baina txapelketetan bai», azaldu digu. Halere, behar duen lasaitasuna denborak emanen dio. Momentuz udari begira jarria da, nahiz eta lasaia izanen dela iritzi: «ez dugu erakustaldi askorik. Krisia nabaritu da eta udalek ez dute ordaindu nahi».

ARTE MARTZIALAK → MADRILEN JOKATU DA LEHIA

# Eskualdeko kenpo jokalariek emaitza onak lortu dituzte Espainiako txapelketan

Bera,  
Doneztebe eta  
Urdazubira joan  
dira sariak

## TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 28an jokatu zen Espainiako Kenpo-Kai Txapelketa Madrilen. Eskualdeko hainbat kirolari izan ziren txapelketan eta emaitza onak lortu zituzten.

**Armekin jokatuakata tradizionalan.** Doneztebeko Rakel Ordozik bigarren postua lortu zuen emakume helduetan gerriko marroi eta beltzean. Izei Gillenea beratarra bigarren izan zen gizonezko helduen lehenengo mailan gerriko marroi eta beltzean eta Daniela Perdomo beratarra hirugarren emakumezko helduetan, gerriko marroi eta beltzean.



ARGAZKIA: KORO IRATZOKI

Eskualdeko kirolariak pozik gelditu dira Espainiako txapelketan egindako lanarekin.

**Defentsa pertsonalen teknikan** emakumeen Kyus mailan, Urdazubiko Ana Mitxelena lehen postua lortu zuen.

**Semikontaktu jarraiko borrokan** Berako Beñat Garaiarre bigarren sailkatu zen 68 kilo artekoen kadeteen mailan.

**Puntukako kontaktuaren borrokan,** Izei Gillenea hirugarren postua lortu zuen, gizonezko helduen kategorian, gerriko marroi eta beltzean eta 71 kilo artekoen mailan. Maria Rekalde beratarra ere hirugarren postua lortu zuen, 11-12 urteko nesken mailan; Ana

Mitxelena ere hirugarren izan zen, 60 kilo arteko emakume helduen Kyus kategorian eta Daniela Perdomo ere hirugarren sailkatu zuen, emakume helduetan, gerriko marroi eta beltzean eta 60 kilo artekoen mailan.

IBILALDI NEURTUA → GENARO TALDEAK ETA BORTZIRIETAKO GORRIAK

# 13 bikotek egin dute realzaleek eta osasunazaleek antolatutako ibilaldia

Berako Eulalia Garmendia eta Faustino Errandonea izan dira irabazle

13 bikotek hartu zuten parte eta bertan irabazle Berako Eulalia Garmendia eta Faustino Errandonea senar-emateak izan ziren, hauek izan baitziren, 2 minutu eta 28 segundoko gora beherarekin, 2 ordu eta 22 minutoko batz bertzeko denborara gehien hurbildu zirenak.

Indarrak hartzeko, ibilbidean zehar pare bat janari/edari postu izan zituzten. Bertzalde, ibilaldiaren bukaeran luntxa eskaini zitzaion parte hartzaileei eta ondotik bi peñetako kideek anaiarteko bazkari ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

ibilaldi neurtuan parte hartu zutenak antolatzaileekin.

tean senidetze ekitaldi bat egin zuten eta bukaera aldera elkarri oroi-garriak banatu zizkieten.

Bi peñak elkarlanean antolatzen duten lehen ekitaldia izan zen ibilaldi arautuarena. Aurtengoa

ikusiz, hurrengo urtean berriz ere errepikatzeko gogoia adierazi dute antolatzaileek.

## TTIPI-TTAPA | BERA/LESAKA

Eguraldi ederra lagun, Realeko Genaro Taldeak eta Osasunako Bortzirietako Gorriak peñak antolatutako lehen ibilaldi arautua egin zen ekainaren 5ean. Alkaiagako frontoitik hasi eta Lesako Koxkila ostatura arteko bidea egin behar izan zuten parte hartzaileek.

TRIALA → IPARRALDEKO TXAPELKETARAKO PUNTUAGARRIA

## Trialsin proba ikusgarria egin da Beran Gure Txokoa elkarteak antolatuta

Oztopoz betetako ibilbidea osatu behar izan dute kirolariek

### TTIPI-TTAPA

Iparraldeko txapelketaren barne lehenbiziko trialsin proba (trila bizikletan) egin zen ekainaren 5ean Berako Toki Ona inguruan, Gure Txokoa elkarteak antolatua. Kirol ekitaldiak jendetza erakarri zuen eta Euskal Herriko trial gidari onenak ere ikus-

teko modua izan zen, ibilbideko oztopo guzietan aurre eginez.

**Elite mailan**, Jon Areitio erraz nagusitu zen, eta ondotik sailkatu ziren Aitor Murua eta Andoni Asenjo.

**Junior mailan**, berdintasun handiagoa izan zen bi lehenbiziko sailkatuen artean eta azkenean Raul Ros gailendu zitzaion Raul Ferrerasi. Jean Denis Housty gelditu zen hirugarren postuan.

**Kadete mailako** hiru parte hartzaileen artean, Gorka Susperre-



ARGAZKIA: GURE TXOKOA ELKARTEA

Ibilbide zaila eta ikusgarria gainditu behar izan zuten partehartzaileek ekainaren 5ean Beran.

gi izan zen onena, Iker Cuellar bigarren eta Julen Arjonak erretiratu behar izan zuten.

**Infantil mailan**, Sergio Fernandezek ikuskizun bikaina eman zuen eta hutsegite bakar bat ere egin gabe irabazi zuen. Unai Zunzunegi izan zen bigarren, Alex Nuñez hirugarren, Julio Elarre laugarren, Peio Adam bosgarren eta Pierre Alex Housty

seigarren.

**Alebin kategoriako** zortzi trial gidarien artean, Iker Rodriguez izan zen garaile, Unai Gomez, Julen Gomez, Iker Garcia, Gaizka Cuellar, Ander Sierra, Julen Saenz eta Ivan Garruosen aitzinetik.

Ttikietan, **benjaminetan** izan zen partehartzerik handiena, hamai-ka mutiko atera baitziren. Andoni Perez izan

zen onena, Xabier Garcia, Haimar Etxeberria, Oier Mitxelena, Iosu Perez, Jean Paul Lopez, Unai Santamaria, Franck Luberrriaga, Igor Bilbao, Oier Iza eta Xan Labarryren aitzinetik.

**Kategoria librea**n, azkenik, Jakes Garbiso nagusitu zen, Julen Gutierrez, Ekain Agirre, Ion Perez, Antoine Calvez eta Ibai Arretxearen aitzinetik.

AIZKORA → BURUZ BURUKO TXAPELKETA

## Txapelik gabe gelditu dira Larretxea, Saralegi eta Zabaleta

Parekatuena Saralegi eta Otañoren artekoa izan da

### TTIPI-TTAPA | LEITZA/BERA

Hiru izan dira Eusko Label Banakako Aizkolarien Txapelketako finalean aritu diren eskualdeko aizkolariak: Oihan Larretxea (Bera, 1990) 23 urtez azpikoen kate-

gorian, Eneko Saralegi (Leitza, 1993) 19 urtez azpikoetan eta Mikel Zabaleta (Leitza, 1997) 15 urtez azpikoen kategorian. Baina hiruetako inork ere ez du txapela eskuratzerik izan.

23 urtez azpikoen finala ekainaren 5ean jokatu zen. Aitzol Atutxa II.a (Dima, 1988) izan zuen kontrario Larretxeak, baina ezin izan zuen joan den urteko ga-



ARGAZKIA: GERARDO BENGOA

Mikel Zabaleta leitzaarra Iker Vicenteren kontra aritu zen finalean.

raipena errepikatu. Lanak bukatzeko 15:24ko denbora egin zuen Atutxa II.ak eta 18:07koa Larretxeak.

Bertze mailetakoko finalak ekainaren 12an jokatu ziren. 19 urtez behetikoa, Eneko Ota-

ñok (Beizama, 1994) jantzi zuen txapela. Saio berdindua eskaini zuten baina Saralegi leitzaarra ezin izan zion gipuzkoarri irabazi. 11:33ko lana egin zuen Beizama-koak eta 11:55koa, berri- z, leitzaarra.

15 urtez azpikoetan, azkenik, Iker Vicentek (Otsagabia, 1997) lortu zuen txapela. Uste baino errazago nagusitu zen Mikel Zabaletaren kontra. Honek 11:48ko denbora egin zuen eta txapeldunak 09:51koa.

**LASTERKETA → KONTRABANDISTEN LEHIA**

# Jandari Said frantziarrak irabazi du Urdazubiko krosa

Iruritakoan,  
berriz, Alberto  
Barberena  
nagusitu da

## TTIPI-TTAPA

Ekainaren 4an egin zen Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketan Jandari Said frantziarra gailendu zen. 15,8 kilometroko ibilbidea osatzeko ordubete, 2 minutu eta 58 segundoko denbora behar izan zuen. Bigarren postua, Bizkaian bizi den Walter Becerra venezuelarrarentzat izan zen (01:04:28) eta hirugarrena Aragoiko Luis Hernandorentzat (01:05:39). Fernando Etxegarai beratarra laugarren izan zen (01:05:43)

eta Iñigo Lasaga etxalar-tarra bederatzigarren (01:12:20).

Sailkapen buruan ageri diren kirolarien izenek eta egindako denborek erakusten dute aurtengoan partehartzaileen maila bikaina izan dela, izan ere, lehenbiziko sailkatuarentzat 500 euroko saria baitzegoen (Montxo Ostata Saria), 250 eurokoa bigarrenarentzat, 150 eurokoa hirugarrenarentzat, 100 eurokoa laugarrenarentzat eta 50 eurokoa bosgarrenarentzat. 7,8 kilometroko tarteko helmugan, Irigoiena Saria ere Saidentzat izan zen.

63 lagunek eman zuten izena, baina 54 ataraziren eta guztiek lortu zuten ibilbidea osatzea.



ARGAZKIAK: NOEL EYHERAGARAY / ONDIKOL

Goiko argazkian, ezker-eskuin, Hernando (3.), Said (1.), Etxegarai (4.) eta Becerra (2.), Urdazubiko lasterketan. Beheitkoan, Iruritako krosean parte hartu zuten korrikalariak.

## IRURITAKO KROSA

Iruritako hirugarren herri lasterketa ekainaren 5ean jokatu zen, Salbatore besten barne. Gizasemeen artean, Elizondoko Alberto Barberena nagusitu zen, 25 minutu eta 16 segundoko denborarekin. Bigarren Iñá-

ki Telletxea izan zen eta Patxi Cobo hirugarren. 26 gizonez kok egin zuten zazpi kilometro eta erdiko ibilbidea.

Emakumeetan, Irazozko Vanesa Patxa izan zen bizkorrena, 19 minutu eta 40 segundoko denborarekin. Bere on-

dotik, Laura Sola eta Maika Ariztegi iturendarra helmugaratu ziren. Sei emakumek egin zuten bortz kilometroko itzulia.

Helduen lasterketaren aitzinetik, 82 neska mutikok parte hartu zuten haurrendako egindako lasterketan.

**IRONMAN-A → IGERIKETA, BIZIKLETA ETA KORRIKA**

# Salouko Extreme Man proban hartu du parte Alejo Sarobe lesakarrak

12 ordu baino  
gehiago eman  
ditu proba  
gogorrean

dabiziko edizioan parte hartu zuen Alejo Sarobe kirolari lesakarrak. Betigazte-lesaka.net-eko triatletaren denboraldiko lehenbiziko Ironmana izan zen. Probaren irabazlea Olivier Marceau frantziarra izan zen, 9 ordu, 29 minutu eta 4 segundoko denborarekin.

## TTIPI-TTAPA

Ekainaren 5ean egin zen Saloun Extreme Man proba gogorraren lehen-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bizikletako proban, 6 ordu baino gehiago behar izan zituen Sarobek 180 kilometro egiteko.

Lesakarrak 12:20:30ko denbora egin zuen.

Igerian 3,8 kilometroak osatzeko ordubete, 13 minutu eta 30 segun-

do behar izan zituen; bizikletan 180 kilometro egiteko 6 ordu, 9 minutu eta 12 segundo eta lasterka maratolian 4 ordu, 39 mi-

nutu eta 20 segundo. Arratsaldeko bero itogarriarekin, nahikoa lan izan zuen lasterketako azken kilometroak bukatzeko.

## ekainak 23 - uztailak 06

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58**Bestak**

DONEZTEBE | 2011.06

**Trapatan dantza ikusteko aukera San Pedro egunean**

Erratzun bezala, Donezteben San Pedro bestak ospatuko dituzte. Egun handiko mezaren ondotik, Banderadantza eta Trapatan dantzatuko dira plazan.

**Ospakizunak**

AMAIUR | 2011.06.25

**Bioeraikuntzaren Adiskideen bilera eta hitzaldi irekiak**

Amaiurko Herriko Ostataua aukeratu dute. Goizean aurkezpena egin eta *la energia zerodun erakina nola egin* hitzaldia eskaini eta horietako bat bisitatuko da.

**Txapelketak**

LESAKA | 2011.07.03

**Baztan-Bidasaldeko XIV. Trikitixa txapelketa**

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Sanferminen aitzineko igandean erabakiko da Baztan-Bidasoko trikitixa txapelketa. Bi kategoriatan lehiatuko dira.

ospatuko dira. Xehetasunak 42 orrian.

ARIZKUN

**San Juan bestak**

**Ekainaren 22tik 25era** ospatuko dira. Xehetasunak 544. alean.

SALDIAS

**San Juan bestak**

**Ekainaren 23tik 26ra.** Xehetasunak 34. orrian.

IGANTZI

**San Juan Xarreko lehenbiziko besta**

**Ekainaren 24ean.** Xehetasunak 28. orrian.

ERRATZU

**San Pedro bestak**

**Ekainaren 28tik uztailaren 2ra.** Xehetasunak 544. alean.

DONEZTEBE

**San Pedro bestak**

**Ekainaren 28tik uztailaren 2ra.** Xehetasunak 544. alean.

AZPILKUETA

**San Fermin bestak**

**Uztailaren 6tik 9ra.** Xehetasunak 43. orrian.

LESAKA

**San Fermin bestak**

**Uztailaren 2tik 10era.** Xehetasunak 11. orrialdean.

**Ospakizunak**

DONEZTEBE

**Arkupeak elkartearen 25. urteurrena**

**Ekainaren 28an** Urrezko Ezteiak eta 85 urte betetzen dituztenak omentzeaz gain, elkartearen 25. urteurrena ospatuko

**Erakusketak**

BERA

**Margo ikastoroko lanen erakusketa**

**Ekainaren 30a arte** Gure Txokoak antolatutako margo ikastaroan egindako lanekin erakusketa lamotenean. Ortzegunetan 19:30etik 21:30era eta larunbatean 10:00etatik 13:00etara.

ELIZONDO

**Margo eta poesia erakusketa**

**Ekainaren 2tik uztailaren 16ra** Diana Iniesta eta losu Morachoren margo eta poesia erakusketa izanen da Arizkunenean.

ELBETE

**Mendiko eta maldetako belar lanetarako makina erakusketa**

**Uztailaren 2an** eginen da Lekueder baserrian, 10:30etik aitzinera. Erakusketa akabailan, eskuko desbrozadora bat zozketatuko da.

**Kontzertuak**

ELIZONDO

**Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertuak****Ekainaren 22an**

Baztango Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertuak eskainiko dituzte 17:30ean Zahar Etxean eta 18:15ean, berriz, Elizondoko Plazan.

LESAKA

**Musika bandaren kontzertua**

**Uztailaren 2an** Sanfermin besten aitzineko kontzertua eskainiko du Lesakako Udal Musika Bandak Plaza Zaharreaan, 20:00etan.

**Lehiaketak**

BAZTAN

**Bertan Elkartek 3. argazki lehiaketa**

**Ekainaren 30ean** akituko da lanak aurkezteko epea, *Baztango inguru eta paisaiak, herriak eta herritarrak* gaiaren inguruan.

BAZTAN-BIDASOA

**Boluntariotza eta elkartasunaz bideoak**

**Azaroaren 11 arte** akituko da Bidelagun elkarteak *Bertzeen laruan jarri* izenburupe-

an antolatutako bideo lehiaketan lanak aurkezteko epea. 14-18 urte arteko gazteei zuzendua. Xehetasunak 45. orrian.

LESAKA

**Trikitixa txapelketa**

**Uztailaren 3an** Trikitixa txapelketa eginen da Plaza Zaharreaan, 17:30ean.

**Bestak**

ALMANDOZ

**Bestaberri bestak****Ekainaren 22tik 26ra**

## PROPOSAMENA

DONEZTEBE

**Arkupeak elkartearen urteko besta**

Aurten Urrezko Ezteiak eta 85 urte betetzen dituztenak omentzeaz gain, erretiratuen elkartearen 25. urteurrena ere ospatuko dute. Garrai bateko kirolariak ere omenduko dituzte, Juan Inazio Retegi, Julian Retegi eta Elias Pierola pilotariak eta Mikel Mindegia aizkolaria, hain zuzen. Bazkariarekin eta Jalisko Band taldearen dantzaldiarekin akituko da besta.





da. Goizean meza, omenaldia, luntxa, kirol erakustaldia, bazkaria, Jalisko Band... Xehetasunak 544. alean.

**AMAIUR**

**Bioeraikuntza hizpide**

**Ekainaren 25ean**

Bioeraikuntzaren Adiskideek bilera egingen dute Amaiurko Herriko Ostatuan.

10:30ean aurkezpena egingen da eta ondotik, *Como construir un edificio de energía casi cero* hitzaldia eskainiko da.

16.00etan eraikin batera bisita egingen da. Deialdia irekia da.

**LESAKA**

**San Juan bezperako besta**

**Ekainaren 23an**

antolatu du Euskara Batzordeak. Xehetasunak 26. orrian.

**Tailerrak**

**ELIZONDO**

**Pintura eta grabatu tailerra haurrentzat**

**Ekainaren 27tik uztailaren 8ra**

Javier Ciga pintura eta grabatu tailerra egingen da 5-9 urte arteko haurrentzat Arizkunean. Astelehenetik ortziratera, 10:30etik 12:30era. Eneko Perez eta Sonia Ilzarbe izanen dira irakasle.

**Mendi irteerak**

**ZUGARRAMURDI**

**Atxuria mendi taldearen ateraldia**

**Ekainaren 26an**

Berarat ateraldia egingen dute Zugarramurdiko mendigoizaleek.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**



Erregina Bahitua

**AITOR ARANA**

Ibaizabal, 2011

Irati basoan sineskeriak eta ipuinak ugariak dira. Baita sorginak, laminak, iratxoak eta heren-sugeak ere, bertako kondairen arabera. Ekaitza denean, kondaira horiez oroitzen dira Irati inguruko biztanleak. Joana Albretekoa basoko izaki berezien laguntza beharko duen erregina da. Eta Elena eta Martin neska-mutikoak tartean ibiliko dira, abentura zirraragarrian, misterioak argitzen. Aitor Arana legazpiarraren azken lana da hau. Idazle eta hizkuntzalariak lan ugari egin ditu, bai narrazioan, gazte literaturan, saiakeran nahiz eleberrietan ere. Irati basoen gertaera bitxiak bezain harrigarriak izanen ditu esku artean liburua hartzen duen irakurle gazteak. Kondairak, sineskeriak eta fantasia baitaude uztarturik istorio harrigarrietan. Ibaizabal argitaletxeak gazte literaturan duen eskaintza zabaltzen du azken liburu honek.

**Musika**



Mukaki Zpirit

**XUTIK**

Baga Biga, 2011

Zpeiz Mukaki taldeko musikariak elkartu eta Xutik taldea izan da emaitza. Euskal dantzari errautsa kendu zion Zpei Mukaki Iparraldeko dantza taldeak. Musikari talde bat ibiltzen zuten euren emanaldietan eta elkarrekin pasatako orduetako solasaldietan sortutako proiektua da talde hau. Proiektu berriak sortzeko gogoaren fruitua, gaur egungo pasibotasunari astindua ematea da euren helburua. Negu Gorriak, Fermin Muguruza, Obrint Pas, Esne Beltza... bezalako taldeen eragina dute. Baina izaera propioari eusten asmatu dute euren lehenengo lan honetan. Peio kantuan, Seb gitarran, Ortzi baterian, Mizel eskusoinu eta tronpetarekin, Patxi saxoa eta gaita jotzen, Amaiur gitarrapalarekin eta Mac Fly teklatuarekin dabilta Euskal Herriko plazetan barrena, *Ezarri Xutik eta Mugitu!* leloarekin.

**Internet**



Sukaldaritzia euskaraz

**WWW.JAKITEA.COM**

Euskal gastronomiari buruzko web orrialdea da Jakitea. Euskal gastronomiaren gaineko informazioa jasotzen du. Ez da web gune berria, gaztelarazko orrialdeak urte asko daramatza martxan. Apirilean jarri zuten martxan euskarazko web gunea. Euskal gastronomiaren gaineko informazioa jasotzen du. Bertan dauden errezeta guztiak eta hiztegi osoa euskaratu dituzte. Mota askotako errezetak biltzen dira: pintxoak, hasierako hotzak eta beroak, arrain eta itsaskiak, haragiak, hegaztiak, saltsak, gozogintza... Janariaren elaborazioan ere azalpenak ematen dira, osagaien zerrendarekin batera. Bertan azaltzen ez diren errezetak ere jasotzeko nahi dituzte egileek eta edozeinek bidali ditzake etxean prestatzen dituen errezetak, mundu guztiaren eskuragarri paratzeko.

**Nire aukera**



**Maialen UITZI**  
Goizuetako gaztea

**«Konpainia onarekin bada, asteburuetan ez dago aspertzetik!»**

Goiz mailako Haur Hezkuntza Teknikari ikasten, ikasturtean bertso eskolako irakasle, asteburuetan sargardotegiko langile... eta halere «denbora libre nahiko eta sobra gainera» izaten omen du Maialenek. Beste «mila gauza» egingen balituzke ere, «lagunekin Gazte-teen berriketan egon edo tabernan trago batzuk hartzen» ditu. Irakurtzeari ere eman dio. Euskal Herrian horretarako aukera izanik, asteburuan parranda egitea gustatzen zaio, «parranda non, goizutarrak han!» dio. Euskal Herriko txokoak ezagutzea ere gustatuko litzaioke, «hamaika txoko zoragarri dauzkigulako deskubritzeko». Asteburuko planei dagokienez, «konpainia onarekin baldin bada, nere lagunekin adibidez, badakit ez dudala aspertzeko denborarik izango eta asteburu ederra pasatuko nukeela!». Normalean oporrak Euskal Herrian egiten ditu, «baina espero dut egunen batean diru pixko bat aurreztu eta bidaiara batzuk egitea, hemendik urruti».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**BERA.** 89 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 4. solairuan. 3 logela, bainugela, komuna, sukaldia, egongela, trastelekua eta balkoia. Gas naturala, berogailua eta igo-gailuarekin. ☎681 017423 (deitu arratsalde).

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-  
rekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**ORONOZ-MUGAIRI.**

100 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Moleztatua. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, biomasa galdara duen berogailua, leihoak etxo-sareekin, jakin gordailua eta kanpora ematen duen trastelekua. Urbanizazio pribatua. Lorategi handia. Aparkalekuak guztientzako eremuan. 228.000 euro. ☎620 679145.



**ETXALAR.** Bi solairuko etxebizitza adostatuak salgai, errentan emateko edo erosteko aukerarekin. Estreinatua gabe, zuzenean promotorea-

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

rengandik. Garajea eta txokoa ere bai. Denak kanpora ematen du. ☎669 432480/629 443405.

**ARRAIOZ.** 90 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 33 m<sup>2</sup>ko sabaiarekin eta 25 m<sup>2</sup>ko lorategiarekin. Sukaldia altxariekin. Egongela 35 m<sup>2</sup>, 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua eta ongi zaindua. ☎696 129234.

**ARIZKUN.** 70 m<sup>2</sup>ko pisua salgai, 30 m<sup>2</sup>ko sabaiarekin. 2 logela. ☎619 474935.

**LESAKA.** Etxebizitza salgai, prezio onean. ☎609 477277.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**IRUÑEA.** Milagrosa auzoan ikasleentzako pisua errentan emateko. 3 logela ditu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ondoan dago. 680 euro hilabetean. ☎626 938312.

**LESAKA.** Pisua errentan emateko. 4 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Gela guztiak kanpora ematen dute, argitsuak. Moleztatua. ☎686 378154.

**BERA.** Pisua errentan emateko. 2 logela sukaldia, egongela, komuna eta garajea. ☎647 840210.

**IRURITA.** Etxe bat errentan emateko. 3 logela. ☎659 764375.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
errentan emateko

**BERA.** Burga karrikan, Telefonica ondoan, garaje

itxia errentan emateko edo saltzeko. ☎664 266131.

**ZERBITZUAK**  
denetarik**LANA****eskaintzak**

**BERA.** Ibardinen neska bat behar da lanean aritzeko. ☎948 630734.

**BERA.** Emakumea behar da ostatu batean sukaldari laguntzaile aritzeko. ☎948 630259.

**ZUGARRAMURDI.** Kattalin jatetxean sukaldia fregaderan aritzeko

langilea behar da, uztailean eta abuztuan. ☎948 599146.

**BERA.** Jatetxe batean uztailean eta abuztuan zerbitzari lanetan aritzeko neska edo mutila behar da. 948 630392.

**LANA****eskariak**

**Emakume batek** adinekoak zainduko lituzke interna moduan. ☎678 397046.

**BERA.** Emakume euskalduna etxeak garbitzen, dendaren batean lanean... ariko litzateke. Manipulazaila karneta duena. ☎680 338153.

**SUNBILLA.** Neska euskaldunak adinekoak edo haurrak zaintzen edo dendetan lan egiten luke, esperientziarekin. ☎680 911915.

**Emakume batek** adinekoak zainduko lituzke edozein tokitan eta interna moduan. ☎678 397046.

**BERA.** Neska gazte euskaldunak udan haurrak zainduko lituzke. ☎948 631182.

**Neska gazte euskaldun** bat edozein lanetan ariko litzateke uztailean eta abuztuan: haurrak zaintzen, ostalaritzan... ☎617 085766.

**MOTORRA****salerosketak**

**Yamaha Banshe quada** salgai. 2002koa. Egoera

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(ekainaren 3tik 10era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 26,00 € (-5,00)

**Zerri gizena**  
1,260 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,420€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,07 (=)

**1.koa** 3,77 (=)

**2.koa** 3,53 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,15 (=)

**1.koa** 3,87 (=)

**2.koa** 3,73 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 120,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**

urruxak 110,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 2,85/2,95

Zaldi-behorrak: 1,75/1,95

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 5,80/6,50

8-10 kilokoak: 4,90/5,20

hagitz onean. 2.700 euro. ☎655 709553.

**Yamaha XT 350** moto-rra salgai. ☎620 135721.



**Kawasaki vulcan 900** classic motorra salgia. 18.000 kilometro. Gara-jean egondua eta berri-berria. Prezioa: 5.500 euro. ☎948 630392.

**Yamaha YZF R6** moto-rra salgai, 7000 K. 2007koa. Beti garajea egondakoa. Bi kasko ere bai, Arai eta Shoei, azken hau estreinatua gabea. Laruzko jaka zuri-beltza ere salgai. 5.300 euro negoziagarriak. ☎687 562559.



**ANIMALIAK**  
oparitzeko

Zakurkumeak oparitze-

ko. Artzain zakurra eta spaniela arteko nahas-keta. ☎679 892622 (dei-tu 20:00etatik aitzinera).



**Zakurkume beltza** oparitzeko. Ama nahasketa. ☎620 401461.

**Katuak** oparitzeko. ☎948 580231.

**ETXALAR.** Artzain zakur-kumeak oparitzeko. ☎636 531792.

**DENETARIK**  
salerosketak

Ruger 44 riflea salgai. Oso egoera onean. ☎948 630449 / 677 592133.

Minerala botatzeko **abonadora** (VICON), **belarra** biltzeko eta **nahasteko** makinak (KHUN) eta 2 mila litroko **zisterna** salgai. ☎649 575549.

**Bulegoko altzariak** salgai. ☎609 445769.

**DENETARIK**  
galdu/aurkituak

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**BERA.** Toki Ona institutuaren inguruan betaurreko graduatuak galdu dira, funda beltz baten barrenean daude. Sarituko da. ☎650 386523/948 625000.

**BERAKO**  
**ISIDORO FAGOAGA**  
**UDAL MUSIKA ESKOLA**

MUSIKA-HIZKUNTZARAKO IRAKASLE BATEN KONTRATAZIOA  
ALDI BATERAKO ETA JARDUNALDI MURRIZTUAN

**Betebeharrak:**

- Musika-hizkuntza edo instrumentuko Erdi-mailako titulua (66ko plana); edo instrumentuko Goi mailako titulua (LOGSE titulua)
- EGA edo baliokidea

**Izen emateko epea:** ekainaren 30eko 13:00ak arte, eskolako idazkaritzan  
**Idazkaritzako ordutegia:** ekainaren 20tik 23ra 15:30etatik 19:00etara  
ekainaren 24tik 30era, 9:30etatik 13:00etara.

Deialdiaren baldintza guztiak: [www.berakoudala.net](http://www.berakoudala.net) webgunean

**TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU**

Zure laguntza eskertzeko  
**DOKUMENTU-POLTSA**  
bat izanen duzu opari

gaur eguneko proiektuaren zentzuan **can proiektu zenbakia 15.996**

Behar gabe, identifikazio kartela eta mugikorrak konpartimentuak

ttipi-ttapa

Era ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektuak aukeratu izaneren frogagarria Nafarroako Kutxaren zuri bilgaiti eta era ezazu TTIPI-TTAPAKA aldatuaz! Xa baina lehen.

**Dasya**

Koskontako bidea, 3 behea  
**LESAKA | 691 025 855**


- YOGA
- HAURDUNENTZAKO YOGA
- HAUR ETA NERABEENTZAKO YOGA
- HAUR MASAJEAK

**LESAKAN ZENTRU BERRIA**  
UZTAILAREN 12AN ARRATSALDEKO 18:00ETAN IREKIKO DITU ATEAK

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



**EKAITZ LOIARTE OTXANDORENA** zubietarrak urteak bete ditu ekainaren 6an. Aunitz urtez eta muxu handi bat Iker, Naroa, Garazi eta Uxue-ren partetik.



**ENAITZ BEREAU IRIGOIENK** urtea beteko du ekainaren 25ean. Zorionak eta muxu bat Lesakako familiaren eta bereziki Unaxen partetik.



Lesakako **ENAITZ BEREAU IRIGOIENK** urtea beteko du ekainaren 25ean. Zorionak eta muxu handi bat Iturengo familiaren partetik.



Ekainaren 15ean bete dituzu 87 urte eta maite zaitugulako asko... Zorionak **JOSE AURELIANO AMESTOY!** Muxu handi bat familiaren partetik. Eta segi barazkiak jaten!



**JON GASTEARENA IRISARRIK** 7 urte beteko ditu ekainaren 29an. Zorionak eta aunitz urtez, bihotza! Etxalar eta Ezkurra familia guztiaren partetik.



Sunbillako **ENEKO HERRERA URROZK** 14 urte bete ditu ekainaren 13an. Aunitz urtez Klemente, Maider, Garaine eta Iraideren partetik. 14 mila muxu.



Iturengo **IÑAKI BAZTERRIKA ILARREGI** ekainaren 4an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat attatto eta amatxoren partetik.



Senpereko **FRANCK** eta **IÑAKIK** urteak bete dituzte maiatzaren 16an eta 26an. Zorionak familia osoaren partetik.



**MARKEL ZELAIETA BERASATEGI** beratarak 2 urte beteko ditu ekainaren 25ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Zorionak **MANITONI** zure urtebetetzean. Muxu handi bat Donamariako moja guztien partetik. Gero eta hurbilago dituzu 50ak...



**OLAIA OTXANDORENA PETIRENAK** 2 urte eginen ditu ekainaren 26an. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren eta bereziki aita eta amaren partetik.



**OLARIXU, GOIURI** eta **PERU URRAYECORA** lesakarre 3 urte beteko dituzte ekainaren 22an. Zorionak eta muxu pila gure hiru bihurri-txoentzat amatxo eta aita txoren partetik.



Urdazubiko **OLAIA** eta **LEIANE REMENTEGI ARIZTIAK** eta **KAIET OTHEGI REMENTEGIK** ekainaren 15, 11 eta 27an 4 eta 2 urte beteko dituzte. Zorionak gure bihurri Urdazubi eta Anizko familien partetik.



Sunbillako **XUBAN** eta **ANE ZELAIETAK** ekainaren 19an eta 29an 7 eta 4 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu handi bana aita, ama eta familia guztiaren partetik.



Askozabaleko **ANTTON IPARRAGIRRE ITURZAETAK** uztailaren 2an urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu handiak etxeko guztien partetik! Pirulero! Oroitu merendola prestatu behar diguzula e!



Zorionak **OIER** eta **AROA ORDOKI FAGOGA** lesakarre ekainaren 27an eta uztailaren 2an 4 eta urtea beteko dituztelako. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



**JANIRE MINDEGIA** aurtiztarak ekainaren 18an 10 urte bete ditu. Zorionak Lesakako osaba-izeben partetik. 10



Sarrigurengo **UNAX BERHO LARRANUARI** zorionak zure aitaxi, amatxi eta osaba Kinkiren partetik. Muxu handi bat eta



Hiru neska polit hauek urteak beteko dituzte laister. Aunitz urtez eta ongi pasa eguna. Berendu goxo baten zain geldituko gara! Muxu handi bat. Kaxkarrak.



Berako **OIHAN TELLETXEIA IRIARTE** bihurriak 3 urte beteko ditu ekainaren 30ean. Zorionak Berako familiaren partetik. Merendu goxo-goxoa presta-



Elizondoko **NAROA CUBERO CACHOK** eta Gazteluko amatxi **ANA MARI GALARREGI** urteak beteko dituzte ekainaren 24an eta 26an. Zorionak eta muxu handi-handi bat familia guztiaren partetik. Prestatu afari goxo-goxoa!



Sunbillako **NEREA PETIRENA GOROSTERRAZUK** uztailaren 4an urteak beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik, baina bereziki argazkian zurekin dauden bi sorgintxoaren partetik. Ogi pasa eguna, beba. Muxuak.

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euskal Herria 37€
- Europa 55€
- Baztan, Urdazubi eta Malerreka 31€
- Amerika eta Australia 123€
- Ipar Euskal Herria 55€
- Leitza 15€



(0034) 948 63 54 58

www.ttipi.net

# ZOAN.S.A.



**TXAPA • PINTURA • MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA**  
**ongi pasa bestak**



Banarta, 2 • Alkaiaga ind. 31789 LESAKA (sarrera Beratik)  
Tel.: 948 625 555 • Faxe: 948 625 505



**RENAULT**

**SANTESTEBAN TAILERRAK**

Leitzako errep. | DONEZTEBE | T. 948 450 282 F. 948 450 857



**MEGANE GRAND TOUR EMOTION**  
1.5 DCI 105 CV  
2008 urtekoa | 54.000km



**DUSTER LAUREATE 4X4**  
DCI 110 CV  
2011 urtekoa 




**MEGANE III DYNAMIQUE**  
1.5 DCI 105 CV  
2010 urtekoa | 16.000km



**MEGANE II BUSINESS**  
1.5 DCI 105 CV  
2007 urtekoa | 41.200km



**MEGANE III EMOTION**  
1.5 DCI 110 CV  
2011koa 



**KANGOO PACK AUTHENTIQUE**  
1.5 DCI 70 CV  
2007 urtekoa | 39.900km



**KANGOO ITXIA CONFORT**  
1.5 DCI 60 CV  
2008 urtekoa | 49.500 km



**CLIO III BUSINESS**  
1.5 DCI 70 CV  
2009 urtekoa | 30.000 km

ETA GAINERA: SUZUKI GRAND VITARA 1.9 DDIS JLX, SUZUKI VITARA 1.6, Scenic RX4 1.9D 100 CV

**KOTXE IA BERRIETAN eta KMO ESKAINTZA ZABALA**



**ttipi-ttapa**

**liderrak  
gure eskualdean**



**ttipi-ttapa**

eta baita azterketa egiterakoan  
CIEsek **Nafarroa Garaiko  
mendialdean**

hartu duen  
111 udalerrien eremuan ere



**BESTE BATZUK**  
10.000  
irakurle



**MARCA**  
1.000  
irakurle



**BERRIA**  
2.000  
irakurle



**GARA**  
6.000  
irakurle



**D. NOTICIAS**  
6.000  
irakurle



**D. NAVARRA**  
12.000  
irakurle

**TTIPI-TTAPA**  
29.000  
irakurle

*milesker ttipi-ttapa irakurtzen duzuen guziet*

**SEXUAREN ARABERA**

**GIZONAK** %49,90  
**EMAKUMEA** %50,10

**ADINAREN ARABERA**

14-24 URTE %14,10  
25-34 URTE %18,90  
35-44 URTE %27,80  
45-54 URTE %14,40  
55-64 URTE %10,30  
+ 64 URTE %14,40

**IKASKETA MAILAREN ARABERA**

IKASKETARIK GABE %2,20  
LEHEN IKASKETAK %13,10  
LANBIDE HEZIKETA %33,50  
BATXILERGOA %26,00  
UNIBERTSITATEA %25,50